

Informazio unitate baten tamainako esaldi laburraren ordenamendu eta informazio-egituraren aukerak eta eraginak Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (II)

**Victor Hidalgo Eizagirre
Euskal Filologian Doktorea**

Lehen atalean (Uztaro 33) esaldi luzeez jardun genuen. Bigarren honetan esaldi laburren joskeraz ari gara: intonazio-informazio unitate arruntaren tamainako esaldiez (10-15 silaba gehienera), hauen ordenamendu eta informazio-egituren aukerez, euskaraz, hizkuntzek ez dituztenez joera eta plegu berak erakusten intonazio-informazio unitateen barne egitura eratzean. Lehen atalean garatu ikuspegi intonatibo eta psikolinguistikoaren haritik jorratzen ditugu esaldi laburron ordena eta informazio egituraren aukerak, esaldia kasu bakoitzean aurkituko den testu-aurre bereziaren arabera. 3. ataleko zenbait joskera proposamenen ondoren, 4.ean ahozko zein idatzizko hainbat testu errealen azterketa aurkezten da lanean garatutako ikuspuntuaren argitara, hainbat ondorio jakingarri azalduz testu bakoitzak, deskodetze garaian, erakusten duen erraztasun / zailtasun mailaren inguruan.

In the first part of this work (Uztaro 33) we talked about long sentences. In this second part we treat the syntax of short sentences: those of the size of an ordinary intonation-information unit (10-15 syllables at most); we talk about their arrangement and information structure options, in Basque, since languages have not same inclinations, same behavior, in configuring the internal structure of their intonation-information units. At the light of the international and psycholinguistical point of view developed in the first part of the work, we examine the optional word orders and information structures of these short sentences according to the special pre-text after which each one appears. After some syntax proposals made at the 3rd point, at the 4th we present the analysis of some real oral and written texts made at the light of the perspective developed in the work, and show some interesting conclusions about the facility or difficulty level each text presents at decoding time.

0. Laburpen sarrera¹

- (1) Zirkura joango gara Anerekin.

Lanaren bigarren atal honetan² eztabaidatuko ditugu banan-bana (1) esaldia-
ren itxurako esaldien ordenamendu eta informazio-egituren aukerak; hau da: (1)
esaldia-
ren antzera,³ berez, tamainaz, intonazio-informazio unitate bakarrean eman
litezkeen esaldi laburren ordenamendu eta informazio-egituren aukera desberdi-
nak. Eztabaida (1) esaldia-
ren gainean egingo dugu, baina berdintsu eraman zite-
keen (2a, b, c, d, e, f) edo antzeko esaldiei begira:

- (2) a. New City bihurtuko da hiriburua.
b. Zakar poltsan aurkitu zuen baloia.
c. Goizean eraman ditu liburuak.
d. Gizon batek hartu zituen eskuan.
e. Goizean ekarri zituen ezkutuan.
f. Gaur etorriko da aita.⁴

Sarrera orokorrean aipatu bezala (0. atala) (1)en itxurako 3 osagaidun
esaldiak (aditza + bi osagarri) 6 ordenamendu aukera ditu.⁵ Permutazio bik aditza
tartean izango dute (3a, b); bik hasieran (3c, d); bik amaieran (3e, f):

- (3) a. ZIRKURA joango gara Anerekin.
b. ANEREKIN joango gara zirkura.
c. JOANGO GARA zirkura Anerekin.
d. JOANGO GARA Anerekin zirkura.
e. Zirkura ANEREKIN joango gara.
f. Anerekin ZIRKURA joango gara.

Sistema kanoniko azkue-altubetarrak onartu ohi ditu 6 ordenamendu aukerok,
baina bakoitzari ezarri nahi izan dio, derrigorrez, informazio-egitura bakarra. Alda-
rrikatuz ordenamendu bakoitzak, ezinbestean, aditz aurreko osagarria
nabarmendu lezakeela soilik (edota aditza bera ere, hau esaldi buru den kasuan),
horrela moduz:⁶

1. Lan hau burutu ahal izan da, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1998-99 eta 1999-2000 ikasturteetarako ikertzaileak prestatzeko zabalduko programetako beka baten bidez. Ikasturte bietan autorea Baionako Euskal Ikasketen Unibertsitate Arteko Sailean aritu da lanean (UMR 5478 / CNRS-Université Michel de Montaigne Bordeaux III), Beñat Oihartzabal zuzendariaren gidaritzapean.

2. Artikulu honen lehen atala, Hidalgo 2000b ("*Galdegai*" bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez —*Hitzen ordena esaldian: Bereizi beharreko eztabaida arlo bi— Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (I)*), UZTAROn 33. zenbakian argitaratu da, eta ezinbesteko da hango azalpenak gogoan izatea osotasunean jabetu ahal izateko bigarren atal honetan garatzen diren ikuspegiez.

3. 12 silaba ahoskera zurrunean, 10 erlaxatuenean.

4. Azken hau, nolabait parafraseatuz Altubek bere bi lan nagusietan (1919: 5; 1929: 1) eztabaida bertsua irekitzeko darabilen *Aita dator gaur / Gaur dator aita* esaldi parean.

5. Alde bat utzirik orain eztabaida honetan aditz partizipioa eta laguntzailearen arteko inbertsioaren aukera (*gara joango* eta antzeko), eta inbertsio honek eragin litzakeen permutazio aukera berriak.

6. Maiuskula txikitzen emanez kasuan derrigorrean azpimarraturik gertatuko litzatekeen osagaia.

- (4)
- ZIRKURA joango gara Anerekin.
 - ANEREKIN joango gara zirkura.
 - JOANGO GARA zirkura Anerekin.
 - JOANGO GARA Anerekin zirkura.
 - Zirkura ANEREKIN joango gara.
 - Anerekin ZIRKURA joango gara.

Eta ezinbestekotasun hori, determinismo hori da guk atal honetan eztabaidatu eta zalantzan jarri nahi duguna. Pentsatuz ordenamendu jakin batek ez duela derrigorrez informazio-egitura bat eta bakarra bideratzen, baizik eta beti izan ditzakeela bat baino gehiago, testu-aurrearen arabera, eta atalak erakutsitako barne egitura intonatiboari loturik.

Hala aztertuko ditugu esaldiok, batez ere:

- Batere testu-aurrerik ez duten egoera batean (1. atala); edo
- Esaldiak osagai berri bakarra erakusten duenean (2. atala), sistema kanoniko altubetarrak gehien azertu duen egoera. Baina baita ere
- Esaldiko osagai batzuk berri eta bestetzuk zahar diren egoera (3.; 4.).
- Azkenik, osagai guztiak aurretik ezagun direneko egoera (5.).

Gure tesia da *Zirkura joango gara Anerekin* bezalako esaldiak, aditza bigarren osagai bezala daraman batek, zeinahi osagaiaren gain ezar lezakeela esaldiko "galdegaitasuna". Ez derrigorrez aditzaren aurreko hartan. Horrela moduz:

- (5) Zirkura joango gara Anerekin. ⇒
- ZIRKURA joango gara Anerekin.
 - Zirkura JOANGO GARA Anerekin.
 - Zirkura joango gara ANEREKIN.

Euskaraz hiru egitura predikatibook dira zilegizko (5a, b,c), eta hirurak erabili ohi dira usu hala ahozko zein idatzizko tradizioz hoberenean, salbu XX. mendeko (hegoaldeko!) estandar idatzi azkue-altubetar murriztean. Egitura hauetako bakoitzak ditu bere maiztasunak eta pleguak testu-aurre bakoitzaren baitan, eta bakoitzak erakutsiko du, derrigorrez, bere intonazio-informazio egitura propioa, intonazio-informazio unitate bakarrean edo bitan banatua,⁷ horrela moduz:

(6)

- ZIRKURA joango gara Anerekin. ⇒ [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]
- Zirkura JOANGO GARA Anerekin. ⇒ [↗ZIRKURA↘↗] [↗JOANGO GARA Anerekin↘]
- Zirkura joango gara ANEREKIN. ⇒ [↗ZIRKURA joango gara↘↗] [↗ANEREKIN↘]

Eta beste hainbeste (3)ko permutazioetako bakoitzarekin:

7. Parentesi zuzenen bidez adierazten ditugu unitate mugak. Geziek, intonazioaren ohiko norabide nagusia erakutsi nahi lukete.

(7) B.	a. <u>ANEREKIN joango gara zirkura.</u>	⇒	[↗ANEREKIN joango gara zirkura↘]
Anerekin joango gara zirkura.	b. Anerekin JOANGO GARA zirkura.	⇒	[↗ANEREKIN↘] [↗JOANGO GARA zirkura↘]
	c. Anerekin joango gara ZIRKURA.	⇒	[↗ANEREKIN joango gara↘] [↗ZIRKURA↘]
C.	a. <u>JOANGO GARA zirkura Anerekin.</u>	⇒	[↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘]
Joango gara zirkura Anerekin.	b. Joango gara ZIRKURA Anerekin.	⇒	[↗JOANGO GARA↘] [↗ZIRKURA Anerekin↘]
	c. Joango gara zirkura ANEREKIN.	⇒	[↗JOANGO GARA zirkura↘] [↗ANEREKIN↘]
D.	a. <u>JOANGO GARA Anerekin Zirkura.</u>	⇒	[↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘]
Joango gara Anerekin zirkura.	b. Joango gara ANEREKIN zirkura.	⇒	[↗JOANGO GARA↘] [↗ANEREKIN zirkura↘]
	c. Joango gara Anerekin ZIRKURA.	⇒	[↗JOANGO GARA Anerekin↘] [↗ZIRKURA↘]
E.	a. <u>Anerekin ZIRKURA joango gara.</u>	⇒	[↗ANEREKIN↘] [↗ZIRKURA joango gara↘]
Anerekin zirkura joango gara.	b. Anerekin zirkura JOANGO GARA.	⇒	[↗ANEREKIN zirkura↘] [↗JOANGO GARA↘]
	(*c. <i>ANEREKIN zirkura joango gara</i>	⇒	(*)[ANEREKIN zirkura joango gara]
F.	a. <u>Zirkura ANEREKIN joango gara.</u>	⇒	[↗ZIRKURA↘] [↗ANEREKIN joango gara↘]
Zirkura Anerekin joango gara.	b. Zirkura Anerekin JOANGO GARA.	⇒	[↗ZIRKURA Anerekin↘] [↗JOANGO GARA↘]
	(*c. <i>ZIRKURA Anerekin joango gara.</i>	⇒	(*)[ZIRKURA Anerekin joango gara]

18 enfasi aukera horiek guztiak⁸ dira maiztasun handikoak euskaraz (ez bakarrik sistema kanoniko azkue-altubetarrak onartu 6ak), salbu (7Ec), (7Fc) bezalakoak, osagarriren bat tartekatzen dutenak azpimarratu nahiko osagaia eta aditzaren artean. Halakoak nekez aurkituko ditugu beste guztien aldean.

Hala, esaldiko osagaietako bakoitza azpimarratzeko aukerak 6 izango dira aditzarentzat, eta 5na beste bi osagaiarentzat. Ez bina, sistema kanoniko azkue-altubetarrak predikatu eran. Horrela:

(8)			
A. ZIRKURA (NORA)	B. ANEREKIN (NOREKIN)	C. JOANGO GARA (ZER EGIN)	
a. [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]	a. [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘]	a. [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘]	
b. [↗ANEREKIN↘] [↗ZIRKURA joango gara↘]	b. [↗ZIRKURA↘] [↗ANEREKIN joango gara↘]	b. [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘]	
c. [↗ANEREKIN joango gara↘] [↗ZIRKURA↘]	c. [↗ZIRKURA joango gara↘] [↗ANEREKIN↘]	c. [↗ZIRKURA↘] [↗JOANGO GARA Anerekin↘]	
d. [↗JOANGO GARA Anerekin↘] [↗ZIRKURA↘]	d. [↗JOANGO GARA zirkura↘] [↗ANEREKIN↘]	d. [↗ANEREKIN↘] [↗JOANGO GARA zirkura↘]	
e. [↗JOANGO GARA↘] [↗ZIRKURA Anerekin↘]	e. [↗JOANGO GARA↘] [↗ANEREKIN zirkura↘]	e. [↗ANEREKIN zirkura↘] [↗JOANGO GARA↘]	
(*f. <i>ZIRKURA Anerekin joango gara</i>	(*f. <i>ANEREKIN zirkura joango gara</i>	f. [↗ZIRKURA Anerekin↘] [↗JOANGO GARA↘]	

Hiru zutabeetan (a) eta (b) dira aukera kanoniko altubetarrak, tradiziozkoak berauek ere zalantza gabe. Baina hauek bezain tradiziozkoak dira (c), (d) eta (e) aukerak ere ((Cf) ere bai aditzaren kasuan). Bitxiak, aldiz, ez ohikoak, (Af) eta (Bf) aukerak. Aukera bakoitzaren eztabaida atalka abiatuko dugu, esaldi bakoitzaren testu-aurre posibleei begira.

1. Esaldia batere testu-aurrerik gabe

Imajina ditzakegu eztabaida esaldiok, berriro, ez izenburu, ez autore, ez ezer ezagutzen ez diogun haur-nobelaren hasierako esaldi. Esaldiaren hiru ordena aukera izango ditugu: aditza, 1. hasieran ematea (1.2.); 2. amaieran, aditzaren

8. Azpimarratuak (a) aukera bezala Altubek derrigorrezkotzat jotzen dituen informazio-egiturak.

aurretik osagarri bat baino gehiago erakutsiz (1.3.); edota 3. tartean, esaldiko bigarren osagai bezala, eta hauetatik hasiko gara (1.1.).

1.1. Aditza esaldiko bigarren osagai duten esaldiak

(9) Zirkura joango gara Anerekin.

Zer sentitzen du irakurleak⁹ (9) esaldia beste testu-aurrerik gabe jasotzean? Hau da, esaldi osoa baldin badu mezu hartzaileak erabat berri? Zein informazio-egitura bereganatuko du? Esaldiko zein atal sentituko azpimarraturik, halakorik baldin bada?

Luzeraz ohiko informazio unitate batean integragarria izaki, irakurleak beste-lako eragozpenen ezean, kolpe bakarrean prozesatuko du esaldi osoa, eta nahi ezta ere, hau ohiko euskal intonazio unitatearen egitura automatikoz irakurri-sentituko du (ik I.1.2. atala), nolabaiteko predikazio egitura batez ere jantzia, hala moduz:

(10) [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]

Unitate hasierako osagaiak jasoko du, kasuan aditzaren aurrekoak, unitatearen nolabaiteko gailur predikatiboa (ahozkoan berezko gailur prosodiko-intonatiboa lukeelako). Aldiz, isats predikatibo gisa sentituko ditu ondoko aditza eta osagarria (ahozkoan isats prosodiko-intonatibo direlarik). Beste testu-aurrerik gabe, irakurleak ez du motiborik esaldiari beste informazio-egiturarik suposatzeke, ez ezartzeko. Halako zer edo zer da Altuberen funtsezko aurreikuspena ere (1915: 5; 1929: 1), bere sistema guztiaren oinarrian dagoena.

1.1.1. Alde handirik ez, halere, osagai berrien informazio kopuruetan

Esaldiak irakurketa prosodiko-intonazional-predikatibo hori edukiko duen arren, irakurlearentzat, beste testu-aurrerik gabe, esaldian emandako osagai guztiak izango dira maila berean berri eta ezezagun, garrantzi informatibo eta semantiko bertsukoak. Irakurlea instant berean jabetuko da (informazio unitatearen berezko ezaugarri, I.1.3-4) unitatearen informazioaz: *zirkura* osagaiaz eta honek irekitzen dituen unibertso predikatiboez; *zirkura joango garenez*, eta *Anerekin joango garenez*, alde handirik gabe osagai batzuek eta besteek eskaintzen dioten informazio kopuruetan. Testu-aurre esanguratsurik gabe, eta osagaien arteko hierarkia semantiko nabarmenik gabe, oso erlatiboa baino ez da izango euskarazko egitura prosodiko-intonatibo automatikoak esaldiari ezarriko dion lehentasun predikatiboa.

Irakurleari gauza bertsua gertatuko zaio (11)rekin, beste eragozpenen ezean, automatikoki ohiko intonazio-informazio-predikazio egitura bereganatuko duena, aditzaren aurreko osagaia nolabait gailenduz:

(11) [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘]

Irakurleak esaldi atal guztiak jasoko ditu instant berean informazio berri bezala: *Anerekin*; *Anerekin joango gara*; eta *zirkura joango gara*, alde handirik gabe ba-

9. Irakurle diogu ezen ahozko hizkeran hitzunak informazio egitura jakin bat erantsiko dio esaldiari prosodia bidez (intonazio, azentu eta pausatzeen bidez), laguntza bat, testu idatziak eskaintzen ez duena, salbu ortografiako zeinuen bidez (kasuan amaierako puntua).

tzuek eta besteek eskaintzen dioten informazio kopuruan. Ondorioz, eta paradoxi-koa dirudien arren, irakurleak, beste testu-aurrereren ezean, alde oso txikia baino ez du sentituko (10) eta (11)ko predikazioen artean, teoria kanonikoak lerrakeenaz bes-tela. Bi esaldiek arrasto bertsua eragingo diote irakurleari nobela baten hasieran.¹⁰

1.1.2. Informazio karga bera ez duten osagaien inguru

Aurreko eztabaida, informazio pisu bertsuko osagarriak zituen esaldi baten ingurutik egin dugu (*Anerekin // Zirkura // Joan*). Besterik izango da, hala ere, eztabaidatzea, semantikoki hierarkizatuak diren osagarriak osatutako esaldi baten gainean. Hala, esateko, Leizarragaren (12) esaldia (Lk, 15,11):

(12) Gizon batek zituen bi seme.¹¹

Halakoa, beste testu-aurrerik gabe, nekez emango du hiztunak intonazio-informazio unitate bakarrean, unitate hasierako osagaia predikatiboki gailenduz beste bien gainetik (13) gisa:

(13) [↗GIZON BATEK zituen bi seme↘]

Irakurleak ere, hiztunak egingo lukeen moduan, ia ziur banatuko du esaldia bi intonazio-informazio unitatetan,¹² aditz aurreko osagaia eman ezinda semantikoki oso garrantzitsua den ondoko objektua baino gailenago, horrela moduz (ik. nolanahi 2. atala):

(14) [↗GIZON BATEK zituen↘] [↗BI SEME↘]¹³

Desberdin da, segur asko, esaldiak osagaien arteko halako desorekarik erakusten ez duten kasua, nola segidako esaldi pareetan:

(15) a. Gizon batek zituen eskuan.
b. Eskuan zituen gizon batek.

(16) a. Goizean zituen eskuan.
b. Eskuan zituen goizean.

non permutazioen arteko desberdintasun predikatiboa ez den horren nabaria.

1.2. Aditzaz hasten diren esaldiak (testu-aurrerik gabe)

Zer gertatzen da aditzaz hasten diren bi ordenamenduekin, esaldiak informazio-intonazio unitate bakarrean emanda?

(17) a. Joango gara Anerekin zirkura.
b. Joango gara zirkura Anerekin.

10. Antzeko hausnarketa bideratzen du Altubek ere momenturen batean bere lanetan (ik. 1929: 68).

11. Vulgatak dio: *Homo quidam habuit duos filios*. Lardizabalek: *Gizon batek bi seme zituen*. Duvoisinek: *Gizon batek bazituen bi seme*. Beste ordenamendu aukera gehiago ere aurki litezke Bibliaren atal honi eginiko itzulpenetan, eta ez ditugu orain eztabaidatuko.

12. Kasuan, agian, seme galduaren parabola gehientsuenoi zaigulako ezaguna, eta badakigulako honetan semeen rola garrantzizko direla.

13. Alderantzizko ordenamendua (*Bi seme zituen gizon batek*) ez litzateke emango bi unitatetan.

Intonazio-informazio unitate bakarrean emanak, unitate hasierako aditzak jasoko du gailur prosodiko-intonatibo-predikatiboa, aipatu euskal intonazio egitura automatikoaren kariaz. Ondoko bi osagarriak klitikoki erantsiak emango dira aurrekoaren isats prosodiko-intonatibo-predikatibo legez. Eta hala sentituko ditu irakurleak ere:

- (18) a. [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘]
b. [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘]

Hala ere, irakurlearentzat, berriro, hiru osagaiak izango dira maila berean berri eta predikazio maila bertsukoak. Eta intonazio automatikoak eragindako hierarkia prosodiko-intonatiboaz landa alde predikatibo txikikoak beren artean. Hala gertatuko lirake, beraz, alde predikatibo handirik gabekoak orain arte aipatu lau permutazioak: (10; 11; 18a, b).

Eztabaida liteke, halere, ba ote duten (18a, b)k alde predikatiborik beren artean, aditz ondoko osagarrien ordena trukaturik. Tradizio erretorikoak maiz esan du (Kintiliano, Demetrio, Zizeron...; ik. Hidalgo 1999), mezu hartzaileari beti gertatu zaizkiola nabarmenago amaierako gunea eta hasierakoa, zeinahi konposiziotan, tartekoak baino. Eta badirudi hala baieztatzen duela azken urteotako esperimentazio psikolinguistikoak ere (cf. Sternberg, 1996: 257).¹⁴ Euskaraz ez gara hartarainoko xehetasun esperimentaletara iritsi. Baina ez dira beste gabe baztertzeko kontuak.

1.2.1. Euskaraz aditzaz hasten diren esaldien inguru

Nolanahi den, euskaraz nekezago aurkitzen dira aditzaz hasten diren esaldiak (%14 inguru), aditzaz amaitzen direnak (%28 inguru) edota aditza tartean dararmatenak baino (%58 inguru) (Hidalgo, 1994; 2000a). Eta askoz nekezago, esateko, gaztelaniaz baino, datu zehatzak ez ditugun arren. Beste hizkuntza gehienetan bezala (Firbas, 1992), euskaraz ere aditza, nahiz esaldiko nukleatzaile semantiko eta morfologikoa izan, ez ohi da gertatu hierarkia predikatibo handieneko osagaia esaldian, salbu ohiko osagai garrantzitsuagoek (subjektu, objektu, adizlagunek) hartu ez dutenean hierarkia horren burua. Badirudi hizkuntza guztietan dela egotzarrik arruntena osagai horietakoren bat ematea intonazio-informazio unitatearen gailur prosodiko-intonatibo-predikatiboan: unitate hasieran euskaraz bezala, intonazio unitatea gainbehera prosodikoan antolatzen duten hizkuntzetan ustez (XV/OV itxurakoak);¹⁵ edota unitate amaiera aldera, intonazio unitatea prosodikoki gorantz antolatzen duten hizkuntzetan, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez bezala (VX/VO itxurako hizkuntzak).¹⁶

14. Intonazio unitateen inguruko ezaugarrien artean, aipatu ditugu euskaraz ere, hasierako osagaien gailentasunaz gain, amaierako silaba luzatzeak, berau ere hainbat nabarmenduz beharbada.

15. OV *object-verb* (objektua-aditza, OA –«Oà» egitura intonatiboa–), edo hobeto XV, *complement-verb* (zeinahi osagai-aditza, XA –«Xà» egitura intonatiboa–) segida, euskarak bezala erakutsi ohi duten hizkuntzak. Hori da euskarazko «aditza bigarren» fenomenorako joera ere.

16. VO, *verb-object* (aditza-objektua, AO –«áO» egitura intonatiboa–), edo hobeto VX, *verb-complement* (aditza-zeinahi osagai, AX –«áX» egitura intonatiboa–) segida erakutsi ohi duten hizkuntzak, gure inguruko gaztelaniaz, frantsesak edo ingelesak bezala.

Eta aditza intonazio unitatearen hasieran emateak eta honek bertako gailur prosodiko-intonatiboa jasotzeak, automatikoki esan nahi du unitateko beste osagaiak ez azpimarratzea. Egitura maiz erabiltzen da euskaraz' osorik bihurtu nahi denean berehala testu-aurre, mezu hartzailea esaldiko detaileetan gerarazi gabe, eta berau lehenbailehen hurrengo esaldi(eta)ra eraman nahian.

Jokoak, Altubek predikatu legean (1919: 26-7, 93; 1929: 57),¹⁷ arintasun berezia ematen dio kontakizunari, akziozkoa ez izaki ere. Altubek 1919an *esaldi neutroak* ere deitzen die aditzaz hasten diren hauei (1929ko *Erderismos*-erako berriri ahanzi nahiko baditu ere). Hala dio amaierako oharrean (1919: 93):

ADVERTENCIA FINAL / A causa de la complejidad de composición que exige este trabajo, se nos han pasado inadvertidas algunas omisiones y erratas, que subsanamos a continuación. / En el capítulo III, al tratar del uso de las oraciones afirmativas,¹⁸ se nos escapó sin anotar la importantísima regla que exponemos a continuación: / «Toda oración, en la que ninguno de sus términos ó elementos se destaca por su importancia sintáctica para poder ostentar con propiedad el carácter de inquirido, debe ser construída en la misma forma que aquellas cuyo elemento inquirido es la cualidad afirmativa del verbo. / » En otros términos: las oraciones neutras, en cuanto a la forma sintáctica, son en euskera las puramente afirmativas. / «He aquí algunas oraciones de este género: / Amodio bat BA'dut berriki sortua. / BA'dira lau egun ori etorri zala. / Ikusiko dogu, arrek be zer egin dayen. / Esta clase de oraciones (sobre todo cuando su flexión verbal es de forma perifrástica) parece que resultan mas expresivas comenzándolas por el verbo.»

Altubek adibideotan ere erakutsi bezala, ordea, euskaraz maiz ematen dira aditzak esaldi hasieran beraiek bakarrik osatuz informazio-intonazio unitatea (edo hauen gailur prosodiko-intonatibo bezala) nahiz ondorengo unitateetan eman esaldiko galdegaia edo predikazio gune nagusiak, bereziki hauek batere pisu, luze edo konplexuak diren orduko (ik. 2.2. atala).

1.3. Aditzaren aurretik osagarri bat baino gehiago erakusten duten esaldiez (testu-aurrerik gabe)

- (19) a. Anerekin zirkura joango gara.
b. Zirkura Anerekin joango gara.

Zer sentitzen du irakurleak, beste testu-aurrerik gabe jasotzean (19a, b) itxurako esaldiak, aditz aurretik osagarri bat baino gehiago dutenak? Galdera klabea, nolana, beste bat da: Eman-jaso al litezke halako esaldiak euskaraz intonazio unitate bakarrean? Gure ustea, hainbatena bezala, ezezkoa da.¹⁹

17. Eta praktikatu ere bai (ik. bere 1957ko *Laztintxu eta Betargi* kontakizuna –ataltxo 10. eransk.–).

18. Eta zioen orduan (1919: 21-22): «Podemos establecer, pues, como regla que en toda oración con flexión verbal perifrástica sin signo especial, y en la que dicha flexión esté colocada a la cabeza de los demás términos que ella contiene, el elemento inquirido será la cualidad afirmativa del verbo / ... / También se puede señalar el carácter inquirido de la cualidad afirmativa de una flexión verbal perifrástica, aun cuando vaya precedida de algún otro término de la oración, separado del verbo dicho término ó términos por una coma».

19. Eta neurri batean, behintzat, esperimentalki ere frogatua dugu, nork bere buruaren aurkezpen egituren inguruan (Hidalgo 2000c). Eta ez daukate egitura hauek zertan antzekoen desberdin izan.

Euskal hiztunak joera du, informazio-intonazio unitatearen hasieran ez doan aditza klitikoki erantsita emateko intonazio etenik gabe unitate hasierako osagarriari, isats prosodiko-intonatibo bezala, tartean beste osagarriarik onartu gabe («aditza bigarren» fenomeno; ik. lanaren I. atala).

Zer gertatzen da orduan, (19)n bezala, aditzaren aurre justuko osagarri gailendutakoaren aurretik besterik ematen denean? Esperimentalki frogatu behar zabalago (Hidalgo 2000c), baina hipotesirik plausibleena da osagarri horien artean derrigorrez ematen dela intonazio unitateen arteko muga. Aditzaren aurreko bi osagarriak intonazio-informazio unitate desberdinetan ematen dituela hiztunak, eta jasotzen dituela entzuleak, hala nola irakurleak automatikoki hiztunaren eta entzulearen joera birsortuz. Muga hori pausa isil edo bete ageriko batez emango da, lehen osagarriaren azken silabaren luzatze nabarmenez, edota, gutxieneko, osagarri bakoitzak bere gailur intonatibo-prosodiko propioa erakutsiz (bi tontorren artean haran baxuagoa erakutsiz), gu \nearrow \searrow zeinuez adierazten gatozen itxurako muga,²⁰ horrela moduz:

- (20) a. [\nearrow ANEREKIN \searrow] \nearrow [\nearrow ZIRKURA joango gara \searrow]
b. [\nearrow ZIRKURA \searrow] \nearrow [\nearrow ANEREKIN joango gara \searrow]²¹

Hasierako osagarria, berezko informazio-intonazio unitatea osatuz, ezinbestean gertatuko da nabarmendua (Euskaltzaindia 1987k mintzagai hanpatua deitzen duenaren itxuran), informazio-intonazio unitate guztiek dute-eta gailur prosodiko-intonatibo propioa berekin, definizioz, hizkuntza guztietan. Hala ere, ez du osatuko bigarren unitateko predikazio gunearen *predikazio markoa* baino:

- (22) a. [\nearrow ANEREKIN \searrow] \nearrow _{PM} [\nearrow ZIRKURA joango gara \searrow]_{PG}
b. [\nearrow ZIRKURA \searrow] \nearrow _{PM} [\nearrow ANEREKIN joango gara \searrow]_{PG}

Eta mezu hartzaileak ez du sentituko lehen unitatea bigarrena bezain nabarmen predikatiboki.²² Bi gailurren arteko hierarkia predikatibo hori eman nahiko dugu aditzera, maiuskula txikiagoz emanez lehen unitatea:

- (23) a. [\nearrow ANEREKIN \searrow] \nearrow _{PM} [\nearrow ZIRKURA joango gara \searrow]_{PG}
b. [\nearrow ZIRKURA \searrow] \nearrow _{PM} [\nearrow ANEREKIN joango gara \searrow]_{PG}

Uste bezala, bi informazio unitateren aurrean baldin bagaude, mezu hartzaileak ez du ja esaldia kolpe bakarrean prozesatuko, baizik eta bitan. Lehenean,

20. Ikertu behar muga horretan inoiz aurki ote litekeen glocalizazio fenomenorik, ahots korden dardara erabat etenez lehen osagarriaren amaieran.

21. Ez gaude oraindik erabat ziur gauzak beti hala direnentz euskaraz edo euskalki guztietan. Bada bigarren aukera hipotetiko bat: pentsatzea, euskaraz ere, inguruko VX/VO hizkuntzetan gertatzen den legez, posible dela intonazio unitatean beste osagarriarik ematea unitateko gailur prosodiko-predikatiboaren aurretik, berezko gailentasunik gabe (nahiz agian gailur intonatiboa bai izan), eta ondoko gailurrari proklitikoki erantsia tarteko etenik gabe. Euskaraz, gailur intonatibo-prosodiko-predikatiboaren silaba azentudanaren aurreko silabekin gertatu ohi den antzera, edota gailur honen aurretik eman ohi den hainbat juntagailurekin ere agian (*eta, baina, nahiz, ...*). Horrela moduz:

(21) a. [Anerekin ZIRKURA joango gara \searrow]
b. [Zirkura ANEREKIN joango gara \searrow]

22. Nahiz eta gehienez (Hidalgo 2000c) bigarren gailur intonatiboan ahots korden dardararen oinarriko maiztasuna, intonazioa (hertzetan) baxuagoa izan lehendabizikoan baino.

lehen osagarria beretuko du (predikazio markoa), eta espektatiba unibertso apropos bat sortuko: *Eta Anerekin, ZER?*, edo *Eta zirkura, ZER?* itxurakoa. Bigarren unitatean erantzungo zaie espektatiba hauei.

Azken bi esaldiak, beraz, aurreko permutazioen (10, 11, 18a, b) oso bestelakoak dira. Haietan apenas aurkitzen genuen hierarkia predikatiborik, salbu prosodiko-intonatiboa. Azken biotan, berriz, hierarkia predikatibo nabarmena dugu (PM / PG), ez gaude-eta jada unitate bakarraren aurrean.

2. Esaldiko osagarri bakarra fokalizatzen

Esaldi osagai guztiak maila bertsuan berri eta ezezagun izatetik, denak ezagun edo zahar izate bitartean, kasuistika infinitua da, eta ez da soilik hitz egiteko modu bat. Atal honetan, sistema azkue-altubetar kanonikoak gehien aztertu duen esaldi motari helduko diogu: osagai bakarra duena berri, fokalizatu, galdegai.²³ Gurea bezalako 3 osagaiko esaldi batean, bi testu-aurrean bertan emanak badira eta mezu hartzailearen espektatiba unibertsoan jada ezagunak, hirugarrena bakarrik izango du berri, eta beraz, fokalizatu. Halako egoera mila modutara eman liteke diskurtsuan. Horietako bat, errepresentatzeko errazena segurua asko, baina ez bakarra, zati galderena izan da. Hala, esateko, gure esaldia aurkituko bagenu hiru galderotako edozeinen ondoren (hirugarren galderaren formulazioa bitxia bada ere):

- (24) a. Norekin joango gara zirkura?
b. Nora joango gara Anerekin?
c. Anerekin zirkura, zer? / Zer egingo dugu (Ane eta zirkuarekin)?

(24a, b) itxurako testu-aurre baten ondoren, esaldiko osagarri bat fokalizatua gertatzen den kasuaz ariko gara 2.1-2-3-4. ataletan, eta aditza bera fokalizatua gertatzen den kasuaz 5.ean. Eta guztietan oinarritzko galdera bera dugu: ea testu-aurre guztiz mugatu horiek nahitaez derrigortzen ote gaituzten kasu bakoitzeko erantzunean ordenamendu bakarra erabiltzera, kanon azkue-altubetarrak dioen legean. Guk ezetz uste dugu. Eta saiatuko gara erantzuna arrazoitzen.

2.1. Ordenamendu kanonikoen intonazio-informazio egiturak

Zer gertatzen da, esateko, *Norekin joango gara zirkura?* galderaren erantzun, gure oinarritzko esaldiaren sei permutazioetako edozein aurkitzen badugu? Litekeena al da ordenamendu hauetako bakoitzean mezu emaileak euskaraz *Anerekin* osagaia azpimarratzea, (25)eko itxuran?

- (25) x. Norekin joango gara zirkura?²⁴

- a. ANEREKIN joango gara zirkura.
b. Zirkura ANEREKIN joango gara.
c. Zirkura joango gara ANEREKIN.

23. 1. ataleko testu-aurrerik gabeko esaldietan maiz hitz egin ohi da gaiaren inguruko literaturan foku informatibo edo zabalaz (*broad focus, information focus*). Aldiz, atal honetan aipatuko ditugun egoeretan foku identifikatzaile edo mugatuaz hitz egin ohi da (*narrow focus, identificational focus*).

24. Ez dugu hemen aztertuko galderari osagai bakarrarekin edo erantzuteko aukera (*Anerekin*), nahiz hau den, segur, maiztasun handienekoa (ik. hurrengo oharra).

- d. Joango gara zirkura ANEREKIN.
- e. Joango gara ANEREKIN zirkura.
- f. ANEREKIN zirkura joango gara.

Lehenengo bi aukerak onartzen ditu sistema azkue-altubetarrak, eta ez dugu guk ukatuko horiek (ere) ohikoak direnik euskaraz. Hala ere, biek intonazio-informazio egitura biziki desberdinak erakutsiko dituzte:

(26) x. Norekin joango gara zirkura?

- a. [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘]_{PG}
- b. [↗ZIRKURA↘↗]_{PM} [↗ANEREKIN joango gara↘]_{PG}

Lehena, intonazio-informazio unitate bakarrean emango da, predikazio gunea osatuko du, eta hasieran izango zalantza gabeko gailur prosodiko-intonatibo-predikatiboa. Bigarren esaldia, hiztunak bi intonazio unitatetan banatua emango du (eta hala irakurriko irakurleak). Lehenengo unitatea predikazio marko soil (eta ahul, testu-aurrean emana), bigarrenak osatuko du predikazio gunea, hasieran jasoz unitateko gailur prosodiko-intonatibo-predikatiboa, eta isatsean klitikoki arrastatuz aditza (hau ere ezagun, ahula).

2.2. Osagarri fokalizatuak euskaraz, maiz aditzaren ondoretik

Hala ere, ez ahozko euskara onenean, ez tradiziozko idazkera sistema zabalean, ez dira (26)ko bi aukerak halako testu-aurre estu baten ondoren aurki genitzakeen ordenamendu bakarrak. Ez eta ere, beste gabe, erabilienak. Horiekin batean aurkitzen ditugu euskararik jator-zintzoenean ere batere arazorik gabe, (25c, d, e) bezalako ordenamenduak ere, orain (27a, b, c):

(27) x. Norekin joango gara zirkura?

- a. [↗ZIRKURA joango gara↘↗]_{PM} [↗ANEREKIN↘]_{PG}
- b. [↗JOANGO GARA zirkura↘↗]_{PM} [↗ANEREKIN↘]_{PG}
- c. [↗JOANGO GARA↘↗]_{PM} [↗ANEREKIN zirkura↘]_{PG}

(26b) bezala, hirurak emango dira bina intonazio-informazio unitatetan. Lehen unitatea, hiruretan ere, predikazio marko ezagun eta ahul; bigarrenak bakarrik osatuko du predikazio gunea. (26a, b)k bina osagai dituzte lehen unitatean. Eta biak ahul eta ezagun izan arren, unitateak intonazio egitura automatikoa gordeko du, hasierako osagaiak jasoz gailur prosodiko-intonatiboa (batean osagarriak; bestean aditzak), eta biek arrastatuko dute klitikoki isats prosodiko-intonatiboan unitateko bigarren osagaia. Unitate amaieran, berriz, eten seinaleez gainera, beti (maizenik?) aurkituko dugu goranzko muga intonazio berezia, ondoko predikazioen iragarle.

Hiztunak hala emango du lehen informazio unitatea, galdera edo testu-aurreko elementu ezagunak errepikatzean,²⁵ eta hala jasoko du entzuleak. Eta hala

25. Denak errepikatzea beharrezko izango ez badu ere. Eman baillitzake hiztunak *Norekin joango gara zirkura?* galderaren erantzun gisa segidakoak ere: [↗Zirkura↘↗] [↗Anerekin↘]; edo [↗Joango gara↘↗] [↗Anerekin↘]. Eman litzakeen bezala: [↗Anerekin↘] soilik, erantzunik arruntena, zalantza gabe; edota [↗Anerekin zirkura↘]; edo [↗Anerekin joango gara↘].

irakurriko du irakurleak ere intonazioaren laguntzarik gabe, berak ere bi osagai dituelako ezagun testu-aurretik eta bakarra berri, automatikoki errepikatuz hiztunaren intonazio-informazio egitura osagai berria gailenduz.²⁶

Antz batera (27c) aukera. Lehen informazio unitatea aditzak osatuko du soilik (predikazio marko ezagun), eta honen ondoren unitate arteko muga eta goranzko intonazioa. Bigarren unitatean, ohi bezala, hasierako osagarriak eramango du gailur prosodiko-intonatiboa, eta honi erantsiko zaio klitikoki isats prosodiko-intonatibo ahulean *zirkura* osagarri ezaguna.

Sistema kanonikoak gaitzesten ditu hiru aukerok galdegaia aditzaren ondotik ematen dutelako; eta euskarazko ordena ez, baina erdarazkoa dutelakoan. Eta egia da antzeko ordenak maiz aurkitzen ditugula inguruko erdara bietan. Hauetan, ordea, halakoak, euskaraz ez bezala, informazio-intonazio unitate bakarrean ere eman litezke ([*Iremos al circo CON ANE*]; [*Nous irons au cirque AVEC ANE*]), unitateko gailur prosodikoa amaierako osagaian emanez, aurretik proklitikoki erantsita unitateko beste osagaia(k). Hizkuntza hauetan, nolabait esan, unitateen egitura prosodiko-predikatiboa behetik gora garatu ohi da (intonazioak bestela egingo baidu ere), euskaraz goitik behera bezala. Ordenamendu bertsuak izan arren, esaldiek egitura prosodiko desberdinak erakutsiko dituzte gure hizkuntzan eta ingurukoetan.

2.2.1. Galdegaia aditzaren ondoretik ematen duten esaldien koantifikazioa

Gu denon esperientzia da: Ahoz, zein idatziz euskara klasikoan, ezin arrunta-goak dira galdegaia nabarmen aditzaren ondotik ematen duten esaldiak. Ez bakarrik pentsamendu edo entendimentuzko aditzekin, orduan zalantza gabe baita egiturarik arruntena (ohiko esaldi galdegai luzedunak). Bai beste zeinahi aditzekin ere, nola objektu berria aditz ondoretik ematen denean aditz iragankorren kasuan ere (*Gizon batek zituen bi seme* itxuran, [*↑GIZON BATEK zituen↘↑*] [*↑bi seme↘*] ebakia)²⁷. Halako egiturak, bakarrik gaur eguneko estandar idatzi azkue-altubetarrean falta dira euskaraz, baina Altube bera da halakoen lekukorik hoberena, gaitzetsi nahian erabateko erabilera aitortzen dienean.²⁸

Zenbat esaldi eman ohi da euskaraz egitura azkue-altubetar kanonikoan, galdegaia aditz aurre justuan; eta zenbat galdegaia aditz ondoretik dutelarik? Gure 1994ko estatistiketan (Hidalgo 1994; 2000a),²⁹ 3 esalditik 1ek ematen du galdegaia aditz aurre justuan, ahoz zein idatziz modu bertsu batean. Aldiz 3tik 2k ondoretik, ahoz zein idatziz, hainbat errazago zenbat eta esaldia luzeago (guztien artean diren arren era guztietakoak). Hala, gu azterten ari garenen itxurako esaldietan (bi osagarri eta aditza –bi osagaikoak deitzen diegu gure estatistiketan–), 10etik 6 inguruk gordetzen du sistema kanonikoa (%61,5ak), eta ia 10etik lauk (%38,5ak) du galdegaia aditzaren ondotik. Segidako koadroan datu batzuk gehiago:

26. Nahiz eta azken 25 urteotako euskara estandarren bitsetan hazi garenoi, ohitura faltan, bitxiak gertatu maiz halako irakurketak. Gerok ere horrela hitz egiten dugun arren (eta ez idazten dugun eran), eta dirudenez horrela hitz egin duten arren euskaldun peto-jantzi-jator guztiek ere beti (baita idatzi ere, azken 50-100 urteotara bitartean).

27. Ik. euskarazko SVO esaldien inguru Hidalgo 1995; K. Rotaetxe Ondarruko kasuan (1978: 650).

28. Ahozkoan ahozkoa delako, idatzian idatzizkoak direlako, esaldi luzeetan luzeak direlako, aditz aurrean beste partikula labur bat ematen delako (galdegai faltsuak), ... (1919; 1929 passim).

29. Bere 3/4etan ahozko euskara azterten, gaur egungoa eta XIX. mendekoa; eta beste 1/4 batean Axular, J.A. Mogel, J.B. Agirre, Duvoisin eta J. Etxepareren testuak jorratzen.

ESTADÍSTIKAK %ETAN:

	Galdegaia aditz aurre-justuan	Galdegaia aditzaren ondoretik
Osagai 1:	73,2	26,8
2 osagai:	61,5	38,5
3 osagai:	49,9	50,1
4 osagai:	39,2	60,8
5 (edo+) osagai:	18,1	81,9
Denera	Aditza esaldi atzealdean: 35,4	Aditza esaldi aurrealdean: 64,6

Galdegaia aditzaren aurre-justuan (aditza atzealdean) erakusten duten esaldien artean, erabateko gehiengoa dira aditzaz amaitzen direnak, %35,4tik %29,9. Soilik beste %6,6 aditza esaldi barrenean erakusten dutenen artean. Biziki esanguratsua da. Eta gurea bezalako bi osagaiko esaldien artean, galdegaia aditzaren aurre-justuan erakusten duten %61,5 esaldietako %53,4 dira aditza amaieran dutenak. Soilik %8k du aditza tartean. Laburtuz, esan, aditza amaieran duten esaldi guztiek (\approx) errespetatzen dutela (%28,1k) lege azkue-altubetar kanonikoa; baina aditza esaldi amaieratik kanpo duten esaldien arteko %9,4k baino ez, eta horiek dira euskarazko esaldien %71,9.

Gaur eguneko estandarreko datuak, zeharo bestelakoak dira, goitik behera irauliz aho hizkera eta literatura klasiko hoberenaren joerak (*Argia*, E. Egunkaria, eta A. Lertxundiren *Karla*-tik; Hidalgo 1994, 2000a):

Gaur egungo estandarrean: Aditza esaldi atzealdean: **81,8** Aditza esaldi aurrealdean: **18,2**

Noiz arte segituko dugu horrela?

Sistema azkue-altubetarraren alde maiz aipatu da De Rijk irakaslearen 1969ko lanaren ondotik, euskara SAO ordenako hizkuntza ote den (Subjektua-Objektua-Aditza) bere ezaugarrietan. Baita estatistikoki ere. Ez ditugu hemen euskararen ezaugarri tipologikoak eztabaidatuko; estatistikak bai. De Rijken datuek diote euskara SAO dela %57an eta SAO %30ean. De Rijk XX. mendean sistema azkue-altubetarrean idatzi edo transkribatutako corpusen gainean egin zuen lan. Datuak zeharo bestelakoak dira eragin azkue-altubetarrez kanpoko aho zein idatzizko zeinahi corpus erabilita. Hala, guk erakusten ditugunak (Hidalgo, 1995), non SAO esaldiak ez diren euskaraz %23,4 baino, eta aldiz, SAO motakoak %55,3 ere bai. Gauzak bere lekura.

2.3. Osagaiak tartekaturik galdegaia eta ondorengo aditzaren artean

Badugu oraindik aztertzeke seigarren aukera bat *Norekin joango gara zirkura?* galderaren erantzun, zeharo desberdina aurreko bost ordenamendu aukeretatik:

(28) (*)ANEREKIN zirkura joango gara.

Ez baita euskaraz ohikoa osagarri tartekatzea azpimarratu nahi den hura eta ondoko aditzaren artean, nondik (*) balizko agramatikalitatearen zeinua. Halako testigantzak, izan badira euskaraz, baina nekezago aurkitzen dira askoz

aurreko bostak baino.³⁰ Altubek berak ere behin baino gehiagotan dihardu halakoez (1929: 15-17).

Badirudi hiztunak halakoetan pausa/eten/muga nabarmen bat egiten duela galdegaiaren ondoretik, zeinahi kausarengatik, aditza eman aurretik. Zenbaitetan, etenaren kausaz ondoko intonazio unitaterako geratutako aditzak hasiko du unitate berria. Baina beste zenbaitetan, aditzak unitate berria zuzenean ireki beharrean esaldiko beste osagai bat hartuko du aurrean honi klitikoki erantsita “aditza bigarren” fenomeno joeran, horrela moduz:

(29) [↗ANEREKIN(↘?)] [(↗?)ZIRKURA joango gara↘]

Halako zerbaitek esplika litzake antzeko adibideak, izan badirenak. Fenomeno bertsua gertatu ohi da zati galderetan esaldiko beste osagaiaren bat tartekatzen denean galdegilea eta aditzaren artean, fenomeno ezaguna bere marjinalitatean, arruntagoa galdera erretorikoetan, erantzun zuzena eskatzen dutenetan baino (*Nork, zuen artean, izango du lan hori hasteko ausardia?*).

Antzeko fenomenoak gertatzen da zenbait aditz lokuzioak jasaten duen joskerarekin: *parte hartu / min egin / lo egin / topo egin / ari izan / izena izan / hegan egin / aditzera eman / atsegin izan* eta antzekoak. Hauetan, galdegileari (edo galdegaiari) erants dakioke aditza zuzenean lokuzioaren osagarria atzeratuz (*nork hartu du parte?*; *nor ari da kantatzen?*; *norekin egin duzu topo?*; ...). Baina era berean dira arruntak (ez dakigu zenbateraino tradiziozkoak, edota egunetik egunera zabaltzen ari direnak), *MIKELEK parte hartu du (MIKELEK hartu du parte esanahian); MIKEL kantatzen ari da (MIKEL ari da kantatzen esateko); MIKELEKIN topo egin dut (MIKELEKIN egin dut topo esanahian);* edo *ZER MUSIKA atsegin duzu?* bezalako galderak (*ZE(R) MUSIKA duzu atsegin?* zentzuan). Nolanahi, halako zenbait lokuzioaren lexikalizazio maila handia da (*NORK hitz egin du?*; *NORK alde egin du?*; eta ez (?)*NORK egin du hitz?*; (?)*NORK egin du alde?* —*Nor joan da?* zentzuan—).

2.4. Beste hainbeste bigarren osagarria fokalizatzen

Aipatu kontu berak gertatuko dira *Nora joango gara Anerekin?*-en erantzun. 6 permutazioetako bi onartzen ditu sistema kanonikoak (30a, b); beste hiru ere bai aho-idatzizko tradizioak (30c, d, e); soilik azkena gertatzen da arrotzago (30f), osagai bat tartekaturik galdegaia eta aditzaren artean:

(30) x. *Nora joango gara Anerekin?*

- a. [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]_{PG}
 b. [↗ANEREKIN↘↗]_{PM} [↗zirkura joango gara↘]_{PG}
 c. [↗ANEREKIN joango gara↘↗]_{PM} [↗ZIRKURA↘]_{PG}
 d. [↗JOANGO GARA Anerekin↘↗]_{PM} [↗ZIRKURA↘]_{PG}
 e. [↗JOANGO GARA↘↗]_{PM} [↗ZIRKURA Anerekin↘]_{PG}
 f. (?*)[↗ZIRKURA(↘?)] [(↗?)ANEREKIN joango gara↘]

30. Aparteko trataera merezi dute puntu honetan Kardaberazen 1760-1766 bitarteko idatziek, eta haren eskolakoak bezala bataiatu ditugunak (F.I. Lardizabal edo G. Arruerenen tankerakoak).

2.5. Eta aditza baldin bada elementu fokalizatua?

Zer gertatzen da esaldi batean elementu berri fokalizatu bakarria aditza denean?³¹ Gure hiru osagaiko esaldia jasoz gero, *Anerekin zirkura, zer?* edo *Zer egingo dugu (Ane eta zirkuarekin)?* itxurako testu-aurre baten ondoren? Kasuan, uste dugu, hiru osagaien 6 permutazioak direla aukerako, nahiz seiek izanen duten beren intonazio-informazio egitura propioa:

(31) x. Zer egingo dugu (Ane eta zirkuarekin)?

- a. [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘]_{PG}
- b. [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘]_{PG}
- c. [↗ANEREKIN↘↗]_{PM} [↗JOANGO GARA zirkura↘]_{PG}
- d. [↗ZIRKURA↘↗]_{PM} [↗JOANGO GARA Anerekin↘]_{PG}
- e. [↗ANEREKIN zirkura↘↗]_{PM} [↗JOANGO GARA↘]_{PG}
- f. [↗ZIRKURA Anerekin↘↗]_{PM} [↗JOANGO GARA↘]_{PG}

Batetik, intonazio unitate bakarrean emanak (predikazio gunea), aditza hasieran unitateko gailur prosodiko-intonatibo-predikatibo duten bi esaldiak, ondoko osagaiak isats prosodiko-intonatibo-predikatiboan arrastatuz, zeinahi ordenatan (31a, b). Beste laurak, bina intonazio unitatetan emanak: bat, aditz aurreko elementuekin (predikazio markoak); bestea, aditza bera buru duena (predikazio gunea). Hala moduz emango ditu hiztunak, eta hala prozesatuko irakurleak, testu-aurreak aginduko dionez espero behar duen galdegaia.

2.5.1. Aukera gehiago ere bai

Baina ez 6 aukera horiek bakarrik ere. *Zer egingo dugu (Ane eta zirkuarekin)?* edo antzeko testu-aurre baten ondoren, era berean aurki genitzake aditzaren aurreko osagai ezaguna gailurtzen duten egiturak ere, (31c, d, e, f)ren aldaki intonatiboak, horrela moduz:

(32) x. Zer egingo dugu (Ane eta zirkuarekin)?

- a. [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘]_{PG}
- b. [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]_{PG}
- c. [↗ZIRKURA↘↗]_{PM} [↗Anerekin joango gara↘]_{PG}
- d. [↗ANEREKIN↘↗]_{PM} [↗ZIRKURA joango gara↘]_{PG}

Zergatik dira posible aukera horiek, aditz aurreko osagaia ezagun eta iragarriak izanagatik? Berrero aipatu behar euskarazko “aditza bigarren” fenomenoak, klitiko agertzeko duen joera unitate hasierako beste osagai bati erantsia. Kontua, berez garrantzi gehiegikoa ez bada ere, interesgarria da ohartzeko ez dela zertan beti automatismo zuzenik aurkitu galde-erantzunen jokoan, testu-aurre eta testu-ondoen artean; eta maiz ez dela halako automatismo zuzena ematen diskurtsoan.

31. Kontuan hartu behar egoera hau ez dela diskurtsoan maiztasun handikoa; beraz, egoera horretan aurkituko ditugun esaldiak ere ez (informazio-intonazio egitura horiek) maiztasun handienekoak. Eztabaidatik kanpo utziko dugu orain, beste bat delako, *egin* partikula indartzailearen erabilera.

3. Testu-aurreak gutxiago mugatzen duenean esaldia

Testu-aurre aukeren kasuistika infinituan, aipa genezake erakusteko nahikoa erraza den beste egoera bat ere. Gure hiru osagaietako esaldia aurkitzea agerian soilik osagaietako bat ematen duen zati galdera baten ondorean, eta hala, erantzuneko osagaietako bat fokalizatuz, horrela moduz:

- (33) a. Norekin joango gara?
b. Nora joango gara?

Gure hiru osagaiko esaldiaren zein ordenamendu dira posible (33a)ren erantzun, berriak izaki *norekin* zati galderari erantzuten dion osagarria, zein *zirkura* adlatiboa. Posible izango dira *Norekin joango gara zirkura?* (2.2.) galderaren erantzuneko ohiko 5 permutazioak, eta arrotza seigarren bera:

- (34) x. Norekin joango gara?

- a. [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘]_{PG}
 - b. [↗ZIRKURA↘↗]_{PM} [↗ANEREKIN joango gara↘]_{PG}
 - c. [↗ZIRKURA joango gara↘↗]_{PM} [↗ANEREKIN↘]_{PG}
 - d. [↗JOANGO GARA zirkura↘↗]_{PM} [↗ANEREKIN↘]_{PG}
 - e. [↗JOANGO GARA↘↗]_{PM} [↗ANEREKIN zirkura↘]_{PG}
 - f. (?*)[↗ANEREKIN(↘?)]_{PG} [(↗?)ZIRKURA joango gara↘]_{PG}

3.1. Erantzunen automatismo ezaren inguru

Hala ere, aukerakoak izan litezke, bitxiagoak izan arren, segidako hiru erantzunak ere ((34c, d, e)ko ordenamendu berak, intonazio-informazio egituraketa desberdinez), unitateko gailur prosodiko-intonatiboa beste osagai batek hartuz, nahiz *Anerekin* osagaiaren balio eta gailurtasun semantikoa estali ezina izan:

- (35) x. Norekin joango gara?

- a. [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]_{PG}
 - b. [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘]_{PG}
 - c. [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘]_{PG}

Hiruretan zati galderari dagokion informazioa atala, isats prosodiko-intonatiboan ematen delarik, esaldiek konnotazio bereziak dituzte. Nola, esateko, erantzuleari garrantzitsuago zaiola, edo hala azaldu duela, gailur prosodiko-intonatiboan eman duen atala, zati galderaren erantzun zuzena baino. Hori da, ordea, elkarrizketaren aukeretako bat, eta hiztuna balia liteke joko horretaz, galderari erantzuteaz gain, esaldiari adiera berriak eranstea. Erantzulea ez dago derrigortua galdegilearen presuposizio joko bera onartzera, nahiz bai, kooperazio printzipioz, galderari erantzun pertinente bat ematera.³² Are aurki litezke segidakoak bezalako aukerak ere, bina informazio unitatetan banatuak:

32. Hau da, erantzuleak ezingo lioke *Norekin joango gara?* galderari, *Zirkura joango gara* erantzun, honi zeinahi informazio egitura emanda ere, ez bada Fernando Amezketarraren kontuetan sartuta.

(36) x. Norekin joango gara?

- a. [↗ANEREKIN↘↗]PM?/PG? [↗ZIRKURA joango gara↘]PG
b. [↗ANEREKIN↘↗]PM?/PG? [↗JOANGO GARA zirkura↘]PG

Erantzun zuzena den osagaia (*Anerekin*), predikazio marko bezala aurkezten du erantzuleak, ondoko unitatean emango den predikazio gune berriaren sarrera gisa. Eta hori ere sartzen da erantzulearen elkarrizketa joko posiblean.³³ Erantzun guztiok dira biziki markatuak, baina garrantzizkoak, jabetzeko galde-erantzunen arteko automatismo sinpleak saihestu beharraz.

3.2. Beste hainbeste bigarren osagarria fokalizatzen

Nora joango gara? itxurako testu-aurre baten ondoren, erantzun arruntak izango dira gure esaldiaren 6 permutazioetako 5 ere:

(37) x. Nora joango gara?

- a. [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]PG
b. [↗ANEREKIN↘↗]PM [↗ZIRKURA joango gara↘]PG
c. [↗ANEREKIN joango gara↘↗]PM [↗ZIRKURA↘]PG
d. [↗JOANGO GARA Anerekin↘]PM [↗ZIRKURA↘]PG
e. [↗JOANGO GARA↘↗]PM [↗ZIRKURA Anerekin↘]PG
f. (?*)[↗ZIRKURA(↘?)]PG [↗ANEREKIN joango gara↘]

3.2.1. Eta erantzunen automatismoak uxatzen

3.1. atalean bezala, nahiz bitxiagoak, elkarrizketaren jokoan aurki litezke erantzunak, *zirkura* osagarriaren orde zuzen baten ematen dutenak unitateko gailur prosodiko-intonatioan, ondoko hiruretan legez ((37c, d, e)ko ordenamenduak, intonazio unitateen egituraketa desberdinez):

(38) x. Nora joango gara?

- a. [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘]PG
b. [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘]PG
c. [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘]PG

Are hurrengoak ere, bina informazio unitatetan banatuak, bereziagoak, sortzen dituzten unibertso predikatiboen ezaugarrietan:

(39) x. Nora joango gara?

- a. [↗ZIRKURA↘↗]PM [↗ANEREKIN joango gara↘]PG
b. [↗ZIRKURA↘↗]PM [↗JOANGO GARA Anerekin↘]PG

33. Areago, halako esaldi baten ondorenean emango badu beste horrelakoren bat: (*Norekin joango gara?*) *Anerekin zirkura joango gara eta Esterrekin igerilekura*.

4. Soilik osagai bat ezagun testu-aurrean

Egoera berria imajina genezake gure 3 osagaiko esaldia aurkituz gero segidako moduko galdera baten ondoren, soilik erantzuneko osagaietako bat azaltzen dutenak testu-aurrean:

- (40) a. Joango gara? / Joango zarete?
 b. Anerekin? / Anerekin, zer?
 c. Zirkura? / Zirkura, zer?

Nahi izanez gero erantzun bakoitzari aurretik *Bai* esaldia erantsiz, uste dugu hiru galderei erantzun dakiekeela, batetik, 6 ordena permutazioetako edozeinekin. Bestetik, ordenamendu hauetako bakoitzak erakusten ahal ditu aukeran hiru intonazio-informazio egitura desberdin (salbu, azpimarratu nahi den osagaia eta ondoko aditzaren artean osagaiaren bat tartekatzen duten biek (41Ec-Fc). Galdera bakoitzari beraz 16 erantzun aukera horrela moduz:

(41)

x. Zirkura? / Zirkura, zer?

A. Bai. Zirkura joango gara Anerekin.	a. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘] b. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA↘↗] [↗JOANGO GARA Anerekin↘] c. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA joango gara↘↗] [↗ANEREKIN↘]
B. Bai. Anerekin joango gara zirkura.	a. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘] b. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN↘↗] [↗JOANGO GARA zirkura↘] c. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN joango gara↘↗] [↗ZIRKURA↘]
C. Bai. Joango gara zirkura Anerekin.	a. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘] b. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA↘↗] [↗ZIRKURA Anerekin↘] c. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA zirkura↘↗] [↗ANEREKIN↘]
D. Bai. Joango gara Anerekin zirkura.	a. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘] b. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA↘↗] [↗ANEREKIN zirkura↘] c. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA Anerekin↘↗] [↗ZIRKURA↘]
E. Bai. Anerekin zirkura joango gara.	a. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN↘↗] [↗ZIRKURA joango gara↘] b. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN zirkura↘↗] [↗JOANGO GARA↘] c. [↗BAI↘] (?*)[ANEREKIN] [ZIRKURA joango gara]
F. Bai. Zirkura Anerekin joango gara.	a. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA↘↗] [↗ANEREKIN joango gara↘] b. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA Anerekin↘↗] [↗JOANGO GARA↘] c. [↗BAI↘] (?*)[ZIRKURA] [ANEREKIN joango gara]

16 aukera horien intonazio-informazio egiturekin imajina litekeenez, 6 permutazioetako 16 enfasi aukera beroriek balio dute *Anerekin? / Anerekin, zer?* edo *Joango gara?* itxurako testu-aurreen ondorenerako, bakoitzak bere unibertso predikatibo propioa eraginez.

Ondorioz, eratorri behar, berriro, ordenak ez duela berez esaldi baten informazio-egitura automatikoki determinatzen. Ordenarekin batera izango dira beti jokoan, esaldiaren egitura intonatiboa, eta osagai bakoitzaren berezko balio semantiko-informatiboa testu-aurre zehatz bakoitzaren baitan.

5. Esaldia, imajina litekeen testu-aurre mugatuenaren aurrean

Eztabaida kasuistikoarekin amaitzeko eta guztiz beste muturrera joanda, zer gertatzen da halako esaldi bat testu-aurre ezin mugatuago baten ondoren daukagun? Hau da, osagai guztiak direnean testu-aurrean ezagun (*Zirkura joango gara Anerekin?* galderaren ondoren kasu), eta beraz erantzuna errepikapena baino ez denean. Derrigortuak al gara orduan ordenamendu bat edo bestera? Intonazio-informazio egitura bat edo bestera?

Ez, ez derrigorrez. Berrito, 6 permutazioen 18 enfasi aukeretako bi izanen dira soilik arrotz euskaraz, osagaien bat tartekatzen dutenak azpimarratu nahi den osagarria eta ondoko aditzaren artean. Hala, are galdera bera zeinahi ordenatan formulatuta ere, eta hauetako bakoitzaren 3 enfasi aukerak erabilita ere. Halako galderak:

(42)

- | | |
|----------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| A. Zirkura joango gara Anerekin? | a. [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘(↗)?]
b. [↗ZIRKURA↘] [↗JOANGO GARA Anerekin↘(↗)?]
c. [↗ZIRKURA joango gara↘↗] [↗ANEREKIN↘(↗)?] |
| B. Anerekin joango gara zirkura? | a. [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘(↗)?]
b. [↗ANEREKIN↘] [↗JOANGO GARA zirkura↘(↗)?]
c. [↗ANEREKIN joango gara↘↗] [↗ZIRKURA↘(↗)?] |
| C. Joango gara zirkura Anerekin? | a. [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘(↗)?]
b. [↗JOANGO GARA↘] [↗ZIRKURA Anerekin↘(↗)?]
c. [↗JOANGO GARA zirkura↘↗] [↗ANEREKIN↘(↗)?] |
| D. Joango gara Anerekin zirkura? | a. [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘(↗)?]
b. [↗JOANGO GARA↘] [↗ANEREKIN zirkura↘(↗)?]
c. [↗JOANGO GARA Anerekin↘↗] [↗ZIRKURA↘(↗)?] |
| E. Anerekin zirkura joango gara? | a. [↗ANEREKIN↘] [↗ZIRKURA joango gara↘(↗)?]
b. [↗ANEREKIN zirkura↘↗] [↗JOANGO GARA↘(↗)?]
c. (?*)[ANEREKIN] [ZIRKURA joango gara] |
| F. Zirkura Anerekin joango gara? | a. [↗ZIRKURA↘] [↗ANEREKIN joango gara↘(↗)?]
b. [↗ZIRKURA Anerekin↘↗] [↗JOANGO GARA↘(↗)?]
c. (?*)[ZIRKURA] [ANEREKIN joango gara] |

Berrito, halako galdera baten baieztoko erantzunik arruntena *Bai* soila izango da, eta gero, beharbada, esaldi zatiren baten, edo osoaren, errepika. Hala, (42)ko 16/18 galdera permutazioetako bakoitzak jaso ahal izango ditu 3 osagaien 6 permutazioetako edozein eta bakoitzaren 3 enfasi aukerak (salbu azpimarratutako osagaia eta aditzaren artean beste osagaien bat tartekatzen duten biak) (41)ean bezala. Horrela (42)ko lehen aukerarekin:

(43)

- | | |
|---------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| x. Zirkura joango gara Anerekin? | xx. [↗Zirkura joango gara Anerekin↘(↗)?] |
| A. Bai. Zirkura joango gara Anerekin. | a. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]
b. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA↘] [↗JOANGO GARA Anerekin↘]
c. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA joango gara↘↗] [↗ANEREKIN↘] |

- B. Bai. **Anerekin joango gara zirkura.**
- a. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘]
 b. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN↗↘] [↗JOANGO GARA zirkura↘]
 c. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN joango gara↗↘] [↗ZIRKURA↘]
-
- C. Bai. **Joango gara zirkura Anerekin.**
- a. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘]
 b. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA↗↘] [↗ZIRKURA Anerekin↘]
 c. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA zirkura↗↘] [↗ANEREKIN↘]
-
- D. Bai. **Joango gara Anerekin zirkura.**
- a. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘]
 b. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA↗↘] [↗ANEREKIN zirkura↘]
 c. [↗BAI↘] [↗JOANGO GARA Anerekin↗↘] [↗ZIRKURA↘]
-
- E. Bai. **Anerekin zirkura joango gara.**
- a. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN↗↘] [↗ZIRKURA joango gara↘]
 b. [↗BAI↘] [↗ANEREKIN zirkura↗↘] [↗JOANGO GARA↘]
 c. [↗BAI↘] (?*)[ANEREKIN] [ZIRKURA joango gara]
-
- F. Bai. **Zirkura Anerekin joango gara.**
- a. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA↗↘] [↗ANEREKIN joango gara↘]
 b. [↗BAI↘] [↗ZIRKURA Anerekin↗↘] [↗JOANGO GARA↘]
 c. [↗BAI↘] (?*)[ZIRKURA] [ANEREKIN joango gara]

Beste hainbeste (43x) galderaren beste bi enfasi aukerekin (42Ab, c). Hala nola (42)ko 16/18 aukeretako bakoitzarekin. Denera 256 / 288 aukera, hiztunak erabil litzakeenak bakoitzari bere hierarkia prosodiko-intonatibo-predikatiboa propioa erantsiz, nahiz denak errepikapen baino ez izan. Eta mezu hartzaileak ere hala interpreta litzake intonazioaren edo testu-aurrearen laguntzaz.

5.1. Esaldi oso bat bihurtzen denean predikazio marko

Jokatzen ari garen testu-aurre erabat mugatuaren ondoren halako 3 osagaiko esaldi bat errepikatzean, honek maiz jokatuko du, osorik, predikazio marko soil papera. Orduan, behehazko intonazioz amaitu ordez, goranzko egingo luke, ondoko predikazio guneen iragarle, nola segidakoan:

(44) x. Zirkura joango gara Anerekin?

- a. (Bai.) [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↗↘]_{PM}³⁴ [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↗]_{PG}³⁵

Kasu honetan ere, zeinahi ordenamendutan eman liteke testu-aurrearen errepika, bakoitzak bere intonazio-informazio egitura propioa gordez:

(45)

x. Zirkura joango gara Anerekin?

- | | |
|-------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|
| a. (Bai.) [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↗↘] _{PM} | > |
| b. (Bai.) [↗ANEREKIN joango gara zirkura↗↘] _{PM} | > |
| c. (Bai.) [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↗↘] _{PM} | > [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↗] _{PG} |
| d. (Bai.) [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↗↘] _{PM} | > |
| e. (Bai.) [↗ZIRKURA Anerekin joango gara↗↘] _{PM} | > |
| f. (Bai.) [↗ANEREKIN zirkura joango gara↗↘] _{PM} ³⁶ | > |

34. Unitatea izan liteke predikazio gune ere, baieztapen modura, aurreko atalean ikusi dugun eran.

35. Gogoratu I. ataleko eztabaida (Hidalgo 2000b), orduan testu-aurrerik gabeko esaldiez ari.

36. Orain arte predikatzen gentozenez bestela, (45e-f) egituretan erraz tarteka liteke beste osagairen bat unitate hasierako gailur prosodiko-intonatiboa eta ondoko aditzaren artean etenik gabe.

5.1.1. Berrito aditzaz hasten diren esaldiez euskaraz

Zirkura joango gara Anerekin? galderak finkatzen duen itxurako testu-aurre baten ondoren esaldia errepikatu eta gero, hiztunak maiz emango du esaldi guztiz berri bat ere segidakoaren itxuran:

(46) x. Zirkura joango gara Anerekin?

- a. (Bai.) [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘↗]PG(PM?) eta [↗HARTZAK ikusiko ditugu han↘]PG

Lehenengo esaldia errepikapena baino ez da, hurrengo esaldiaren testu-aurre soil. Intonazioak adieraziko du lehen esaldiaren ahulezia, eta bigarrenaren garrantzia. Halako egoera batean ere lehen esaldiaren 6 ordena permutazioak dira posible, (45)en bezala:

(47)

x. Zirkura joango gara Anerekin?

- | | | |
|----|------------------------------------------|--------------------------------------|
| a. | (Bai.) [↗Zirkura joango gara Anerekin↘↗] | > |
| b. | (Bai.) [↗Anerekin joango gara zirkura↘↗] | > |
| c. | (Bai.) [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘↗] | > eta [↗HARTZAK ikusiko ditugu han↘] |
| d. | (Bai.) [↗JOANGO GARA Anerekin zirkura↘↗] | > |
| e. | (Bai.) [↗ZIRKURA Anerekin joango gara↘↗] | > |
| f. | (Bai.) [↗ANEREKIN zirkura joango gara↘↗] | > |

Nolanahi, esaldi oso bat, berehala hurrengo esaldiaren testu-aurre baino bihurtu nahi ez denean, euskaldunak joera berezia du esaldi hau aditzaz hasteko, intonatiboki beste osagarririk indartu gabe, mezu hartzailearen arretoa zuzenean aditzak adierazten duen ekintzara erakarrit, eta soilik ekintzen segidari emanez garrantzia. 1.2.1. atalean aipatu ditugu esaldiok eta Altubek 1919an aitortzen zien neutraltasuna. Fenomenoa ez da mugatzen testu-aurre erabat mugatutako esaldietara, eta maiz aurkitzen da esaldi erabat berrietan ere.

Esaldiak aditzaz hasita, honek eta honek adierazitako ekintza-egoerak jasoko du unitateko gailur prosodiko-intonatiboa (eta ez beste osagarri batek), eta ekintzara eramango du mezu hartzailearen arretoa (eta ez haren xehetasunetara, nahiz hauek ere berri eta garrantzizko izan), ekintza-egoera batetik bestera, ekintza-egoeren katean, azken esaldia maiz *eta* konjuntzioaz hasiko delarik.³⁷ Joko honek arintasun berezia eman ohi dio kontakizunari (zeinahi kontakizuni), beste orde-namendu batzuen aldean, Altube berak ere ongi sumatu bezala, Txomin Agirre, Kirikiño edo Prai Bartolomeren adibideak emanez (1919: 26-27; 1929: 59-60).

Hori uste dugu maiz gertatzen dela, aditza doaneko unitatea predikazio marko soil denean, ondorengo unitate(et)an emanez predikazio gunea(k). Antzeko fenomenoak uste dugu gerta litekeela mendeko esaldietan ere, unitate hasierako osagai gailendua eta aditzaren artean beste osagaiaren bat tartekatuz etenik gabe. Hori dena esperimentalki frogatu beharko genuke. Guztietan geratuko litzaioke, hala ere, hiztunari aukera, predikazio marko horiek, predikazio marko txikiagoetan banatuak emateko.

37. Ez horregatik derrigorrez aditzaz amaitu, maiz bidegabe predikatu den bezala.

5.1.2. Esaldi osoak galdegai luze baten isats prosodiko bezala?

(45) adibidera itzuliz, zer gertatzen da *Zirkura joango gara Anerekin?* galderaren itxurako testu-aurre baten ondoren, hiru osagai horiek (45)eko aukeretan bezala esaldi hasieran errepikatu beharrean, amaieran errepikatuz gero, *Eguraldi txarra egiten badu* 11 silabako galdegai “luze” baten ondoren? Edo areago, galdegaia balitz 16 silabako *Ikaragarri eguraldi txarra egiten badu*, edo 18ko *Ikaragarri eguraldi txarra egiten baldin badu*? Galdera garrantzi handikoa da. Ezen, lehenengo eta behin, euskaraz ohiko lirudike halako galdegai bat esaldi hasieran eman ondoren, esaldiko aditza segidan erantsita ematea, beste osagairik tartekatu gabe:

(48) x. *Zirkura joango gara Anerekin?*

- a. EGURALDI TXARRA EGITEN BADU joango gara zirkura Anerekin.
- b. IKARAGARRI EGURALDI TXARRA EGITEN BADU joango gara zirkura Anerekin.
- c. IKARAGARRI EGURALDI TXARRA EGITEN BALDIN BADU joango gara zirkura Anerekin.

Halako esaldien prosodiak arazo berriak azalarazten ditu. Intonatiboki haustezen bezala predikatzen bada, egin ohi den bezala, galdegaia eta ondoko aditzaren arteko elkarte, zer gertatzen da elkarte hau jada intonazio-informazio unitate arrunt baten luzera mugetan eman ezin denean?

(48a)k 16 silaba ditu galdegaia (gailur prosodiko-intonatiboa) eta ondoko aditzaren artean (isats prosodiko-intonatiboa). 23, isats prosodiko-intonatibo berean eman nahi izanez gero ondoko bi osagaiak ere (bestalde logikoa dirudien bezala testu-aurrean ezagun diren heinean). Zaila da denak intonazio unitate bakarrean ematea, eta horretatik erakusten dituzte halako esaldiek, horren arruntak gaur eguneko estandar idatzian (galdegai luzexka + aditz nagusia + isats prosodiko-intonatiboko osagai ahulak) ahoskatze eta intonatze arazoak, gure esatari gizagaixoak maiz arnasarik gabe ito beharrean utzi izan dituztenak. Arazoa argiago sentitzen da (48b, c) esaldietan, 21/28 / 23/30 direnean intonazio unitate bakarrean eman beharreko silabak. Nola intona unitateok euskaraz? Zaila. Eta horretatik euskara guztien betidaniko joera batere galdegai luzeak aditzaren ondoko informazio unitate independenteetan emateko.

Kontua ez da, halako ordenamendurik ematen ez denik euskaraz (gaur egungo estandar azkue-altubetar edo Kardaberazen eskolaz landa ere). Halakoetan, ordea, uste dugu zalantza gabe eman ohi dela etena / pausa / unitate arteko muga, galdegaia eta aditzaren artean, printzipio kanonikoa hautsiaz, eta esaldia bi informazio unitate independenteetan emanez, segidakoaren itxuran:

(49) [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↘] [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘]

Lehen informazio unitate buruak jasoko du esaldiko intonazio gailurra, eta bigarrenagoa, aditzean emana,³⁸ ahulagoa izanen da, mendekotasuna adieraziz,

38. Nahiz, 2.3.n aipatu bezala, bi unitateko banaketak erraztuko duen aditza bigarren unitatearen hasieran eman beharrean, atzerago emateko aukera (“aditza bigarren” fenomeno), beste osagairen bat tartekatuz galdegaia eta aditzaren artean, horrela moduz:

6. Euskara hitz ordena libroko hizkuntza

Hitz ordena aski libroa dugu euskaraz dio Euskaltzaindia 1987k (22), baieztapen, gauden gaudenean txalotzekoa, ezaguturik hitz ordenaren inguru gaur egun oraindik bizi ohi den eztabaidaren arnasak. Guk ere gogotik aldarrikatu nahi dugu libertatearen printzipioa, hiztunaren asmoen haritik, hiru faktoreon baitan: testu-aurrea, osagaien berezko balio semantiko informatiboa, eta osatutako unitateen intonazio-informazio egitura.

Xehe eztabaidatu ditugu 3 osagaiko esaldien enfasi eta ordenamendu aukerak libertate printzipio horren ingurutik, kasuistika ezin zabalagoa den arren. Libertatearen harian, esaldien ordenamendu eta enfasi kontuak nahiko nahasi eta konplexuagoak dira Altubek diseinatu baino, ordenamendu batek ez baitu derrigorrez informazio-egitura bakarra bideratzen euskaraz.

Sistema kanonikoak, 3 osagaiko esaldian, 6 ordena permutazioekin, ez ditu onesten 6 informazio-egitura baino, euskarak ohikoak dituen 16etatik (18 aukera posibleetatik bazterrean utzirik galdegaia eta ondoko aditzaren artean beste osagai bat tartekatzen duten biak). Altuberen sistemak ez ditu onartzen zilegizko diren informazio-egituren %37,5 baino, eta debekatzen, lapurtzen dizkigu euskal idazle-irakurleoi, espresio aukeren %62,5. Nola idatz liteke ongi euskaraz, informazio-egituren 3tik 2 ukatuta? Hala sortutako idatziek ezinbestean dute Perek-en *La Disparition* eleberriko prosaren artifizioaren itxura, honek e letra duten hitz guztiak baztertzen dituenean (frantsesez!). Guk antz batera egin ohi dugu joskeran.

Euskaltzaindia 1987k darakuski lthurrik aurkeztutako *aitak / eman dio / sagarra / haurrari* lau osagaien 12 silabako 24 ordena permutazioak, denak zilegizkoak euskaraz, nahiz ohartarazten duen denek ez ote diguten molde berean jotzen belarria. Baina, Altubek predikatuaren kontrara, aldarrikatu behar berriro 24 permutazio horietako bakoitzak ez duela derrigorrez itsatsia informazio-egitura bakarra, baizik 4 ere bai.⁴⁰ Hala, (51x) ordenamenduak zilegi izango ditu, hiztunaren nahitara, ondoko lau informazio-egiturak, eta mezu hartzaileak ere hala prozesatuko ditu testu-aurre egokiaren ondorean:

(51) x. Aitak eman dio sagarra haurrari.

- a. [↗AITAK eman dio sagarra haurrari↘]_{PG}
- b. [↗AITAK↘↗]_{PM} [↗EMAN DIO sagarra haurrari↘]_{PG}
- c. [↗AITAK eman dio↘↗]_{PM} [↗SAGARRA haurrari↘]_{PG}
- d. [↗AITAK eman dio sagarra↘↗]_{PM} [↗HAURRARI↘]_{PG}

Eta beste hainbeste esaldiaren beste 23 permutazioekin ere. Denera 96 enfasi aukera teoriko, zeinetako 18 arrotz osagaien bat tartekatzen duten neurrian

- (50) a. [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↘] [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]
b. [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↘] [↗ANEREKIN joango gara zirkura↘]

Euskaraz horren ohikoak ez diren egiturei bide emanez.

39. Eta esaldia nahasi gabe lanaren lehen atalean aztertu testu-aurrerik gabeko [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↘↗]_{PM} [↗JOANGO GARA zirkura Anerekin↘]_{PG} itxurako esaldiekin.

40. Zeinetako batzuk, berriro, ez ohiko izango diren, osagaien bat tartekatzen duten neurrian azpimarratu nahi den osagarria eta ondoko aditzaren artean.

azpimarraturiko osagarria eta ondoko aditzaren artean. 78 aukera erabilgarri, zeinetako 24 soilik onartzen dituen sistema kanoniko azkue-altubetarrak, %30,8; %69,2 baztertuz. Hainbat eta bazterketa handiagoa zenbat eta esaldi luzeagoak, segidan erakusten dugun eran:

Euskarazko esaldien enfasi aukerak (aditza barne)				
	Aukera teorikoak:	Euskaraz zilegizkoak:	Altubek onartuak:	Altubek onartu %ak:
Osagai 1	1	1	1	100,0 %
2 osagai	4	4	2	50,0 %
3 osagai	18	16	6	37,5 %
4 osagai	96	78	24	30,8 %
5 osagai	600	456	120	26,3 %
6 osagai	4.320	3.120	720	23,1 %
7 osagai	35.280	24.480	5.040	20,6 %
8 osagai	322.560	216.720	40.320	18,6 %
9 osagai	3.265.920	2.136.960	362.880	17,0 %
10 osagai	36.288.000	23.224.320	3.628.800	15,6 %

Gauzak benetan dira konplexuak. *Aitak etxean gaur eman dio sagarra haurrari* 6 osagai eta 16 silabako esaldi arruntak,⁴¹ jada 720 ordena permutazio ditu, eta 3.120 zilegizko enfasi aukera (4.320 teorikoetatik), zeinetako 720 bakarrik onesten dizkion sistema kanonikoak, %23,1 (nahikoa, hauek ere, konplexutasunaz jabetzeko), eta %76,9 ukatzen. *Nire aurrean eman dio gaur etxean aitak haurrari sagarra isil-isilik poltsa barrenean arrearentzat*, 37 silaba eta 10 osagai independenteko esaldi ez arrunt baina bai posibleak, 3.628.800 ordena permutazio desberdin ditu, eta 23.224.320 zilegizko enfasi aukera (36.288.000 teoriko posibleetatik). Sistema kanonikoak hauetako %15,6 onartuko ditu soilik (3.628.800; batzuk bai, horregatik), eta %84,4 baztertu.

Aditzaren osagarrietako bakoitzak bere aldetik segidako enfasi aukerak ditu:

Aditzaren osagarri bakoitzaren enfasi aukerak				
	Aukera teorikoak:	Euskaraz zilegizkoak:	Altubek onartuak:	Altubek onartu %ak:
Osagarri 1 (+ aditza)	2	2	1	50,0 %
2 osagarri (+ aditza)	6	5	2	40,0 %
3 osagarri (+ aditza)	24	18	6	33,3 %
4 osagarri (+ aditza)	120	84	24	28,6 %
5 osagarri (+ aditza)	720	480	120	25,0 %
6 osagarri (+ aditza)	5.040	3.240	720	22,2 %
7 osagarri (+ aditza)	40.320	25.200	5.040	20,0 %
8 osagarri (+ aditza)	362.880	221.760	40.320	18,2 %
9 osagarri (+ aditza)	3.628.800	2.177.280	362.880	16,7 %

41. Ideia bat egin dezagun, gure estatistiketako hiztun arrunt batek ahoz, 1993-II-22ko ETBko *Ados?* eztabaida saioan izandako parte hartze arrunt bateko 41 esaldiek, batez beste, 30,5 silabako luzera dute. Idatzian, adibide, *E. Egunkaria*-n, 1999-V-11n, K. Martinek idatzitako artikulu xume eta arineko 32 esaldik, batez beste, 31,8 silabako luzera dute.

Ondorio xume: hitzen ordenamendurako sistema kanonikoak neurri eta funts gabe murrizten dizkigu euskaraz espresibitate aukerak.

7. Ondorio nagusiak

Euskara hitz ordena nahiko libroko hizkuntza bezala aldarrikatzeak, besteak beste esan nahi du esaldi sintagmak beren artean zeinahi ordenatan antolatuta ere, mezu hartzaileak finean informazio bera eskuratuko duela ordenamendu batean zein bestean. Ez da berdina izango mezu hartzaileak ordenamendu batean edo bestean xahutu beharreko kemena informazio bertsura iristeko. Zenbait ordenamenduk erraztu egingo diote bidea, eta beste zenbaitek nekezagotu, oztopatu eta okertu.

Ordenamendu batzuk dira aberatsak, XX. mendera bitarteko literaturak darabiltzanak, eta ezagutzen ditugun ahozko erabilera guztien pareko gertatzen direnak. Horiek ez dute ulertzeko batere eragozpenik eragin ohi. Eta beste ordenamendu batzuk dira murrizak, azken 25 urteotako prosa estandarrarenak, egunetik egunera hobetzen goazen arren, mezu hartzaileari deskodetze lana neurri eta funts gabean zailtzen diotenak.

Eta gure tradizio hoberenari hurbildu nahiz, berraipatuko ditugu zenbait printzipio, libertate eta konplexutasun ikaragarri horretan ordena pixka bat jar lezakeitenak:

1. Ez da komeni aditza gehiegi atzeratzea esaldian. Ez da komeni informazio unitate gehiegi, predikazio marko gehiegi ematea, esaldiko aditza daraman informazio unitatearen aurretik.
2. Ahalik eta dislokazio eta eten txikiak eragin beharko genituzke, funtzioz edo esanahiz elkarrekin zerikusi estua duten osagaien artean.
 - a. Hala, esaldi barrenean osagaiak ahalik eta gutxien urrunduz zuzenean gobernatzen dituen aditz burutik. Nola
 - b. Esaldien artean:
 - Esaldi bakoitzean aurrealdeko informazio unitate(et)an emanez aurreko esaldiekiko / testu-aurrearekiko lotura egiten duten osagaiak, berez ezagunak, arruntki laburrenak, eta zeinen artean maiz aurkituko den esaldiko aditza bera. Era berean eman beharko ditugu esaldi aurrealdean honen predikazio markoa osa dezaten nahi genukeen osagaiak.
 - Aldiz, esaldiaren atzealdeko informazio unitate(eta)rako utzi beharko ditugu, osagai berrienak, predikatiboak, maiz luzeenak, gero usu ondoko esaldietako mintzagaia eraikitzeke erabiliko direnak.
3. Informazio unitate bakoitzeko ordena eraikitzean kontuan hartu beharko dugu euskaraz honen hasierako osagaiak jasoko duela automatikoki unitateko gailur prosodiko-intonatibo-predikatiboa, eta ez beste batek. Honi gero aditza erantsi ohi zaio, klitikoki, isats prosodiko-intonatibo-predikatibo modura (aditzik bada unitatean), eta beharbada baita ere ondoren beste osagai ez oso luze, eta ez bereziki nabarmentzekoren bat.

4. Azkenik, jakin, euskaraz galdegaiak, hiztunak ororen gainetik komunikatu nahi duen hura biltzen duen atalak, ez duela derrigorrezko gune jakin bat izango esaldian, baizik eta (ik. Aske 1997 ere):

- Hala joan litekeela aditzaren aurre justuko gunean, bereziki osagai hori laburra eta aditzarekin batera informazio unitatearen luzera neurrirako egokia baldin bada. Eta hala gertatzen da 3 esalditik 1ean gure eredu behar duen literatura klasikoan eta aho hizkera imitagarriean. Eta (ia) beti ere bai aditzaz amaitzen diren esaldietan (guztien %28,1; Hidalgo 1994, 2000a).
- Edo bestela, aditzaren ondorengo zeinahi informazio unitateren buruan (ez jada aditzaren unitate berean), nola gertatzen den 3 esalditik 2an aipatu literatura klasiko eta aho hizkera imitagarrian. Ia beti ere bai –%90,1– aditzaz amaitzen ez diren esaldietan. Hainbat gehiago esaldi luzeagoetan laburragoetan baino, edo galdegai / iruzkin luzexka erakusten dutenetan. Horretarako nahikoa da aditza aurreko informazio unitate independente batean ematea (bigarren osagai bezala klitikoki erantsita unitate buru izango duen osagarriari; edo are esaldi hasieran bertan, bakarrik edo unitate buru bezala, nola gertatzen den euskarazko esaldietako %14,3n aipatu eruedetan; Hidalgo 1994; 2000a).
- Azkenik, jakin, esaldiek predikazio gune bat baino gehiago erakutsi lezake-tela euskaraz (ere) –galdegai bat baino gehiago–: lehena aditzaren informazio unitatean honen aurre-justuan; eta hurrengoak (edo guztiak) ondorengo unitateetan.

7.1. Epilogoan

Horregatik, (52a) bezainbesteko euskara izango da (52b). Eta arruntki uste denaren kontrara, askoz ere neutroagoa eta enfasi gutxiagokoa da (52a) kanonikoa, (52b) ez-kanonikoa baino. Eta azken hau askoz erabiliagoa enfasi berezia emateko aditz ondoko osagarriei. Hala nola izan zitekeen Alfontso Irigoienek eginiko bertsolarien ofizioen aurkezpena modu kanonikoan (52a), edota bere ohikoan (52b):

- (52) a. [↗BASARRI↘↗]PM [↗ARRANTZALEA izango da↘(↗?)]PG [↗eta UZTAPIDE↘↗]PM [↗EHIZTARIA izango da↘]PG // [↗BASARRIK↘↗]PM [↗BI KAINABERA ekarriko ditu bizkar gainean↘(↗?)]PG [↗eta UZTAPIDEK↘↗]PM [↗BI ESKOPETA izango ditu besapean↘]PG
- b. [↗BASARRI izango da↘↗]PM [↗ARRANTZALEA↘(↗?)]PG [↗eta UZTAPIDE izango da↘↗]PM [↗EHIZTARIA↘]PG // [↗BASARRIK ekarriko ditu↘↗]PM [↗BI KAINABERA bizkar gainean↘(↗?)]PG [↗eta UZTAPIDEK izango ditu↘↗]PM [↗BI ESKOPETA besapean↘]PG

Zein da adierazkorragoa?

7.2. Oharño bazterreko bat

Zer gertatzen da euskaraz aditz trinko buruzuriak esaldi hasieran dituzten esaldiekin? Hauek dira gure debekuen debekua; eta izan badira, horregatik (gure

estatistiketan %1era ez dira iristen). Hala dio, esateko P.A. Añibarrok erreskadan emandako lau lerrokatatan (≈1820; 1987: 221-223):

Zagoz pobre, bearturic, cer jan ta janci ez dozula; ... / **Dozu** senar bat jocolaria, jocoan aste guztico ta bearbada urte osoco irabaztéac ondatuten deutsuzana; **daucazu** senar bat edan charrecoa, ardanegui zalea, moscortuten dana, berandu echeratuten dana, galantac emoten deutsuzana, escu gogorrecoa, ondasunén ondatzallea, astuna; ... **Daucazu** emazte bat ernegaria, bicia, aserrecorra, muquertia, biraoguillea, apaintzallea, bereaz beti urten gura dabena, eche guztia aidean goicoaz bera dedarrez darabillana, barritsua, verbatsua, miñ zorrotz arinduna, baqueric emoten ezteutsuna, celoduna, luzaro verbaric eguin бага musturturic egon oi dana. ... / **Daucazuz** seme alaba deunguero aciac, muquerrac, gogorrac, gogaierazoten deutsuenac, beimbere zure esana eguiten eztabenac, lotsaric ezteutsuenac, nondic nai dabiltzenac. ... **Zara** otseiña, serbitzaria, besteren aguintaritzta ta ogui pean zagozana, dozu ugazaba ta ugazabandre bat guztiz estua, oñolaria, aguiricaria, aldi charrecoa, beti esetsi, eraso ta gogor artuten zaituana; ... / **Daucazu** faltaren bat gorputzean; ...; edo **zagoz** beste penaren bategaz; ...

Halako testigantzak gora-behera, ez dira guretzat irentsi errazak, *Daukat dirua* (53x) edo *Nago bakarrik* (54x) itxurako esaldiak. Eta izan ere halako esaldietan garbi da *dirua* edo *bakarrik* osagarriek ohi luketela predikazioaren pisua.⁴² Kontua da, halako esaldi laburrak (5na silaba) berez intonazio-informazio unitate bakarrean emango lirakeela. Ordea, euskarazko unitate bakarreko ahoskatzeak (53a) eta (54a) izanen lirake, unitate-esaldiko gailur prosodiko-intonatio-predikatiboan emanez aditz trinkoa, zeina ez den oso ondo egokitzen esaldien berezko egitura predikatiboarekin. Aldiz, euskaraz ez da posible (53b) edo (54b)ren itxurako ahoskatzea (gaztelaniaz edo frantsesez arrunta litzatekeena: *Tengo dinero; Estoy solo* itxurako egituretan). Hauen euskarazko ahoskatze posible bakarra bi unitateetakoa litzateke (53c) eta (54c)ren itxurakoa, baina hau ere ez da batere arrunta gertatzen 2 eta 3 silabako unitate eskasak emanez (nahiz inoiz hala gertatu):

(53) x. *Daukat dirua.

- a. *[↗DAUKAT dirua↘]
- b. *[Daukat DIRUA]
- c. (?)[↗DAUKAT↘↗] [↗DIRUA↘]

(54) x. *Nago bakarrik.

- a. *[↗NAGO bakarrik↘]
- b. *[Nago BAKARRIK]
- c. (?)[↗NAGO↘↗] [↗BAKARRIK↘]

(53c) edo (54c) bezalako unitate eskasen banaketak arruntagoak dira haur txikien artean eta hizkuntza ongi menderatzen ez duten haiengan (zer esanik ez haur euskaldun berrien artean). Baina halako esaldiak aurkitzeko aukera, nahikoa zabaltzen da Añibarroren testuan bezala aditz trinkoaren osagarriak hainbat luzeago, pisuago eta konplexuagoak diren orduko. Halako zerbait gertatzen da ere

42. Desberdina litzateke *Badaukat dirua* esaldia, [↗BADAUKAT dirua↘] intonaturik.

iparraldean *nago* eta *daukat* bezalako aditzak maiz erabiltzen direnean esaldi buruan pentsamenduzko aditz gisa (ohituraz galdegai-iruzkin luzekoak), nola segidako adibideetakoak:

- (55) a. Nago hori ez ote den ama. (OEH, VI, 451)
b. Daukat ez dela gizonik galde hoitarik bakar bati ihardets dezakenik. (J. Etxepare, *Buruxkak*, 85).

Hala moduz ere, zerbitzariak otordurako janariak aurkeztean bere mintzoa maiz horrela moduz has lezakeenean:

- (56) a. Daukazue lehenengo arrain zopa, entsalada, entsalada epela, ...
b. [↗ DAUKAZUE lehenengo ↘ ↗] [↗ ARRAIN zopa ↘ ↗] [↗ ENTSALADA ↘ ↗]
[↗ ENTSALADA epela ↘ ↗]

Halako esaldiak, nolahi, ez dira maiztasun handiegikoak euskaraz. Guztien %0,85 baino ez gure estatistiketan, eta aditzaz hasten direnen %5,9. Horraino beren garrantzia.

8. Eranskina: zenbait testuren azterketa

Lanaren I. eta II. ataletan zabalduetako ikuspegiaren haritik saiatu gara irudikatzen eta aztertzen euskarazko hainbat testuren balizko informazio egituraketa. Hala aukeratu ditugu literatura nolabait klasikoko hainbat eredu, nola ahozko zenbait testigantza, hauek gero konparatzeko gaur egungo euskara estandarreko testuekin.

Testu idatzietako esaldien informazio unitatekako banaketa beti da hipotetiko, irakurketa batek edo bestek, intonazio eredu batek edo bestek, esaldien banaketa desberdinetara eramango gaituztelako, unitate luzeagoak edo laburragoak ebakiz. Gure egituraketan, testu guztietan saiatu gara irakurle jantzi batek egin ditzakeen erdibideko aukerak egiten: ez unitate luzeegiak; ez ere laburregiak. Nolanahi J.M. Satrustegiren elkarrizketako testuak, zuzeneko grabaketa batetik jasoa, erakusten duen bezala, benetako hiztunen ahozko unitateen luzera nahikoa laburragoa da normalean guk hemen aukeratu duguna baino. Hemen zabalago aurkezten ditugun hiru testuetan ohar puntualen bidez eman dugu aukera aniztasun hauen berri.

Hemen agerian hiru testuren azterketa erakutsiko dugu adibiderako, mota bakoitzeko testu bana (literatura klasikoa, ahozkoa, euskara batua), guztiena erakustea luzeegi delakoan. Beste testuak, unitate bakoitzari eman diogun kategoria predikatiboarekin 9. ataleko eranskinean ematen ditugu.

Hiru testu horien azterketaren ondoren bildu dugu datu-koadro orokor batean aztertu 17 testuen azterketaren zenbait emaitza, testuen arteko konparaketa egiten lagun dezaketenak, hainbat iruzkin jakingarrirekin. Aurrerantzean zeinahi testurekin egin lezake nornahik antzekorik, eta ziur, eztabaida berri interesgarrien pizgarri izanen da.

Azterketan esaldien informazio unitatekako banaketa bat proposatu dugu (unitateak [] kortxete zuzenen artean emanak), eta hauetako bakoitzari balio predikatibo bat ezarri diogu: predikazio marko (pm), predikazio marko global (pmg), edo predikazio gune (pg) (ik. I. atala eta hango glosategia). Era berean saiatu gara unitateen balizko muga intonazioak itxuratzen (↗ goranzko; ↘ beheranzko; edota ↗↘ bien konbinaketa ordena horretan), eta maiuskula txikitan emanez unitate bakoitzeko balizko gailur prosodiko-intonatiboa.

8.1. Idatzizko zenbait testu klasikoren informazio-egituren inguru

Testu klasikoen artean bi eratakoak aztertu ditugu. Batetik, narrazio testu nolabait arinak, J.B. Agirre edo Axularrenaren itxurakoak. Bestetik joserka konplexuago eta esaldi luzeagoko testuak, nola Larramendirena, Aranburu eta Bago mediku jaunena edo J. Etxeberri Sarakoarena, zuzenean konparagarriagoak gerta litezkeenak euskara estandarren erakusgarri aukeratu ditugun testu puztuagoekin. Segidan lehendabizikoaren azterketa bakarrik azalduko dugu, eta beste laurak kategorizazioekin 9. eranskinean.

8.1.1. J.B. Agirre, *Eracusaldiac - I* (1808, 1850, Hordago, 1978, 252; baina baita ere oso antzera, II, 365 eta III, 532).

Irugarren ondorena, beti gueroraco utzitzea confesio ona, eta *guero* ura beñere ez etortzea, ceren nola otsoac ardia lepoan estutzen duan orroa equin ez dezan ala demonioac eztarria estutzen die becatariari, aitortu ez ditzeen becatuac, dio San Agustiñec. Ala guertatu citzayon Valenciaco dama bati. (Nescacha au zan ederra, ta doai onez apaindua, baña il citzaizcan gurasoac, eta)⁴³ Guertatu zan Ama gabe; asi citzayon ezcutari bat sarritan itz eguiten, eta atzenean mila losencharequin becuraco bidea ematen. Denboren buruan erori zan. Sarritan confesatzen zan, len oi zuan eran, baña etzan atrebitzen guertatu citzayona esatera. Iru urte joan ziran guisa onetan confesio, ta comunio gaiztoac eguiñaz. Urte oen buruan joan zan erri artara misionari andi bat, eta asi zan Jaunaren itza adiratzten. Etzuan damac sermoiric utseguin: eta bacoitzac arpoi baten eran igarotzen zion biotza batetic bestera. Ecin negarrez ase zan, eta cion beregan: *Betiko cere burua galdu naico dezu? Etzenduan lotsaric becatu equiteco: eta lotsatzen zera aitortzeco?*

8.1.1.1. Pasartearen informazio-egituraren itxuraketa esaldika

1. [↗IRUGARREN ondorena↘]_{PMG}⁴⁴ [↗BETI↘]_{PM} [↗GUERORACO utzitzea↘]_{PMG}⁴⁵
[↗CONFESIO ona↘]_{PG}⁴⁶ [↗eta⁴⁷ GUERO ura↘]_{PM} [↗BEÑERE EZ etortzea↘]_{PG}

43. Parentesi arteko esaldi biok ez dira ematen *Eracusaldietako* lehen liburukian, baina bai III.ean (532). Pasartearen collage bat jasotzen duen I. Mujika Iraolak biltzen ditu bi esaldiok ere (*Arpoi baten eran*, 21), eta hala aztertu ditugu guk.

44. Unitatea, aditz nagusirik gabea, beharbada kontsidera liteke predikazio marko soil, baina aurreko esaldia –itxura berekoa, aditz nagusirik gabekoa– kontuan harturik (*Bigarren ondorena*: ...), irakurleak ez du espero behar aditz nagusirik esaldian. Unitateak, hala, predikazio marko globalaren rola jokatu du aditz nagusirik gabe ere.

45. Azken bi unitateak beharbada eman litezke bakar batean *beti* osagarria gailur hartuta (10 sil.).

46. Beharbada eman liteke azken unitate hau aurrekoaren isats prosodiko-intonatibo gisa 14 silabako unitate luzea osatuz eta *confesio ona* atalari azpimarra galaraziz. Baina ez da ohikoa izanen.

47. Ez dakigu oso ondo halako juntagailuekin zer gertatzen den. Uste dugu zenbaitetan proklitikoki eransten zaizkiola, atonoki, ondoko gailur prosodiko-intonatiboari. Halakoetan tonu igoera juntagailurekin berarekin emango da. Beste zenbaitetan, berriz, juntagailuak bere kasako unitate independentea osatu ohi du. Esperimentalki frogatu behar hori guztia.

2. [↗CEREN↗]_{PM} [↗NOLA otsoac ardia↗]_{PM} [↗LEPOAN estutzen duan↗]_{PM}⁴⁸
[↗ORROA eguin ez dezan↗]_{PM} [↗ALA demonioac↗]_{PM} [↗EZTARRIA estutzen
die↗]_{PMG} [↗BECATARIAI↗]_{PG}⁴⁹ [↗AITORTU ez ditzeen becatuac↗]_{PG}⁵⁰ [↗DIO
San Agustiñec↗]_{PG}⁵¹
3. [↗ALA guertatu citzayon↗]_{PMG} [↗VALENCIACO dama bati↗]_{PG}
4. [↗NECACHA AU zan↗]_{PMG} [↗EDERRA↗]_{PG} [↗TA↗]_{PM}⁵² [↗DOAI ONEZ⁵³
apaindua↗]_{PG}
5. [↗BAÑA↗]_{PM} [↗IL CITZAIZCAN gurasoac↗]_{PG}⁵⁴
6. [↗eta GUERTATU zan↗]_{PMG} [↗AMA gabe↗]_{PG}
7. [↗ASI CITZAYON ezcutari bat↗]_{PMG} [↗SARRITAN itz eguiten↗]_{PG} [↗eta
ATZENEAN↗]_{PM} [↗MILA losencharequin↗]_{PM} [↗BECATURACO bidea ematen↗]_{PG}⁵⁵
8. [↗DENBOREN buruan↗]_{PM} [↗ERORI zan↗]_{PG}⁵⁶
9. [↗SARRITAN confesatzen zan↗]_{PG} [↗LEN oi zuan eran↗]_{PG}
10. [↗baña ETZAN atrebitzen↗]_{PMG} [↗GUERTATU citzayona esatera↗]_{PG}⁵⁷
11. [↗IRU URTE joan ziran guisa onetan↗]_{PG}⁵⁸ [↗CONFESIO ta comunio gaiztoac
eguiñaz↗]_{PG}⁵⁹
12. [↗URTE OEN buruan↗]_{PM} [↗JOAN ZAN erri artara↗]_{PMG} [↗MISIONARI andi
bat↗]_{PG}
13. [↗eta ASI ZAN↗]_{PMG} [↗JAUNAREN itza adiratzen↗]_{PG}
14. [↗ETZUAN damac↗]_{PM} [↗SERMOIRIC utseguin↗]_{PG}⁶⁰

48. Predikazio markoen artean bereizketa gehiago egin ez badugu ere, nabarmen da azken unitate honek predikazio gune rola ere jokatzeko duela *nola* juntagailuak irekitako mendeko esaldian, hala nola egiten duen hurrengo unitateak ere. Horrelako bereizketak ere egin beharko dira.

49. Beharbada eman liteke azken unitatea aurrekoaren isats prosodiko-intonatibo bezala 14 silabako unitate luze batean, *becatariai* osagarriari azpimarra galaraziz. Baina ez da ohikoa izan.

50. Litekeena da *becatuac* osagarria aurreko unitatearen isats prosodiko-intonatibo bezala ematea ere. Hala, unitate osoak hartuko luke predikazio gune balioa.

51. Unitatea aditz trinkoak hasten du eta kakotx batek (pausa batek) eteten du aurreko nolabaiteko galdegaitik, eta hori ere kontuan hartzekoa da. Kasuan *San Agustiñec* atala azpimarratu nahi izanez gero, beharrezkoa litzateke bi intonazio-informazio desberdinetan ematen unitatea.

52. Halako juntagailu bat, bi predikazio guneren artekoa, oso litekeena da unitate beregain batean ematea, hurrengo esaldiko *baña* bezalaxe.

53. Izen + adjektibo sintagmetan arazoak ditugu gailur prosodiko-intonatiboa batean ala bestean kokatzeko garaian. Esperimentalki ikusi beharko litzateke.

54. Beharbada eman liteke unitatea bitan banatua aditza alde batetik eta osagarria bestetik, bereziki azpimarratuaz *gurasoac* atala. Unitate bakarrean emana, esaldia berehala hurrengoaren predikazio marko bihurtzen den horietakoa da, hura *eta* juntagailuz hasia (baina ez aditzaz amaitua).

55. Beharbada zati liteke bitan 11 silabako unitatea: *becaturaco / bidea ematen*.

56. Azken bi unitateak batean ere eman litezke *denboren buruan* atalak jasoz predikazio gune bakarraren gailur prosodiko-intonatiboa eta aditza enklitikoki arrastatuz. Baina ez da ohikoa izan.

57. Beharbada bana liteke bitan 11 silabako unitatea: *guertatu citzayona / esatera*.

58. 13 silabako unitate luzea, bi PGtan bana litekeena: *iru urte joan ziran / guisa onetan*.

59. 15 silabako unitatea erraz bitan bana litekeena: *confesio ta comunio* izenak PMA osatuz, eta *gaiztoac* adjektiboak jasoz PGko gailur prosodiko-intonatibo bereziki azpimarratua.

60. Benetan da kontuan hargarria ezezko aditz perifrastikoaren banaketa bi unitatetan, bi gailur prosodiko-intonatibo-predikatibo eraginez. Bata ezezko partikulak, edota honek eta aditz laguntzaileak leramakete; bigarrena, aditz partizipio nagusiaren aurre justuko osagarriak, zeini eransten zaion partizipioa klitikoki isats prosodiko-intonatibo-predikatiboan. Halako ikuspegi batek eman lezake argitasunen bat ezezko esaldien azterketan ere.

15. [↗eta BACOITZAC↘↗]PM [↗ARPOI BATEN eran igarotzen zion biotza↘↗]PG⁶¹
 [↗BATETIC bestera↘↗]PG
16. [↗ECIN negarrez ase zan↘↗]PG
17. [↗ETA↘↗]PM [↗CION beregan↘↗]PMG⁶² [+18_{PM+PG}+19_{PMG+PG}+20_{PMG+PG}]
18. [↗BETIKO cere burua↘↗]PM [↗GALDU naico dezu?↘↗]PG⁶³
19. [↗ETZENDUAN lotsaric↘↗]PMG⁶⁴ [↗BECATU eguiteco↘↗]PG
20. [↗eta LOTSATZEN zera↘↗]PMG [↗AITORTZEKO?↘↗]PG⁶⁵

Pasarteko esaldien eskema da:

ESAL	INFORMAZIONITATEAK								
	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.
1.	PMG	PM	PMG	PG	PM	PG			
2.	PM	PM	PM	PM	PM	PMG	PG	PG	PG
3.	PMG	PG							
4.	PMG	PG	PM	PG					
5.	PM	PG							
6.	PMG	PG							
7.	PMG	PG	PM	PM	PG				
8.	PM	PG							
9.	PG	PG							
10.	PMG	PG							
11.	PG	PG							
12.	PM	PMG	PG						
13.	PMG	PG							
14.	PM	PG							
15.	PM	PG	PG						
16.	PG								
17.	PM	PMG	(PM)	(PG)	(PMG)	(PG)	(PMG)	(PG)	
18.	PM	PG							
19.	PMG	PG							
20.	PMG	PG							

8.2. Ahozko testigantzen azterketa

Aztertu ditugun ahozko testigantzak dira: J.F. Cerquandek XIX. mende amaieran Baxenafarroa eta Zuberoan bildutakoen arteko kontakizun bat,⁶⁶ gaur egungo jantzixeago bi (B. Atxagari eginiko elkarrizketa bata, eta J.M. Satrustegi euskaltzainarena bestea), eta bi kontakizun arin (bata bizkaierazkoa, eta bestea 12 urteko gaztetxo batena goi-nafarreraz). Satrustegiri eginiko elkarrizketaren zuzeneko grabazioa izan dugu eskueran soilik. Beste lau transkribapenak ez dira aukerakoak baino, errealizazio zehatzean bestela eman litezkeenak, muga

61. 15 silabako unitate luzea, bitan bana litekeena erraz, aditza eta ondoko osagaia utziaz predikazio gunerako, eta aditz aurreko osagaia unitate independente batean emanez, hartara, etena sortuaz galdegaia eta aditzaren artean.

62. Ohartzekoa aditz trinkoa unitate eta esaldi buruan, *eta* juntagailuaren ondoren.

63. Uste dugu galderako bi unitateetan gertatzen dela bitxitasunik, *cere burua* osagaia tartekatua *betico* eta *galdu naico dezu* aditzaren artean. Esango litzateke *cere burua* osagaia hobeto lihoakeela esaldi buruan edo amaieran. Halako kasuak, nolana, galdegaia eta aditzaren artean tartekatutako osagaiak bezala, ez dira aurki ezin ez literaturan eta ez ahozko testigantzetan.

64. Beharbada eman lekiok unitateari predikazio gunea kategorian ere.

65. Ohargarria da galderaren egitura, zalantzarik gabe galderaren predikazio gunea (galdegaia?) aditzaren ondoko unitatean ematen baita.

66. Nahiz honen hitzen ordenaren fideltasunaz ezin diren izan iritziak baino.

batzuen barne. Satrustegiren transkribapenetik ikas liteke, benetako unitateak nahiko laburragoak izan ohi direla hipotetikoki izan litezkeena baino. Nolanahi, beste transkribapenetan ez gara joan halako unitate minimo horien bila. Segidan Cerquanden testuaren informazio egituraren itxuratzea erakusten dugu. Beste lau testuak 5. ataleko eranskinean jaso ditugu, unitateen kategorizazioarekin.

8.2.1. *Espainia eta pakea* (J.F. Cerquand, *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*, (1874-1884), Txertoa 1985, A. Arana, 19.)

Jesus Kristo gure Jauna eta Jondoni Petri zabiltzan Espainian ebanjelioaren predikatzen. Herri batean paratzen zirelarik, heianganat heldu ziren lekhu hartako handietarik zenbait, behar zutela okasioneaz baliatu beren erresumaren sekulako zorionaren egiteko. Mintzatzen direlarik Jondoni Petriri erraiten diote:

— Jauna, fagore eske heldu gare. Othoizten zaitugu, ardiets dauzkigutzun lau gauza gu guzien nagusiarengatik, amorekatik eta izan dadin gure erresuma bethikotz uros. Nahi ginuke ogi, arno eta haragi ausarki, eta laugarrenekorik bakea.

Hekien galdea entzun eta Jesus Kristok erraiten diote:

— Ez da posible lau gauza horiek izan diten elgarekin. Emaiten daukitzuet ogia, arnoa eta haragia, bainan horiekin ez duzue ukhanen bakerik.

Orduz geroztik Espainian bada abundanteia, bainan falta dute bakea.

8.2.1.1. Pasartearen informazio-egituraren itxuraketa

1. [↗JESUS Kristo gure Jauna↘↗]_{PM} [↗eta JONDONI Petri↘↗]_{PM} [↗ZABILTZAN Espainian↘↗]_{PMG}⁶⁷ [↗EBANJELIOAREN predikatzen↘↗]_{PG}
2. [↗HERRI BATEAN paratzen zirelarik↘↗]_{PM}⁶⁸ [↗HEIENGANAT heldu ziren↘↗]_{PMG} [↗LEKHU hartako↘↗]_{PM} [↗HANDIETARIK zenbait↘↗]_{PG}⁶⁹ [↗BEHAR zutela↘↗]_{PMG} [↗OKASIONEAZ baliatu↘↗]_{PG}⁷⁰ [↗BEREN ERRESUMAREN↘↗]_{PM}⁷¹ [↗SEKULAKO zorionaren egiteko↘↗]_{PG}⁷²
3. [↗MINTZATZEN direlarik↘↗]_{PM} [↗JONDONI Petriri erraiten diote↘↗]_{PMG} [+4_{PM+PG} +5_{PMG+PMG+PG+PG+PM+PMG+PG} +6_{PMG+PM+PM+PM+PG+PM+PG}]
4. [↗JAUNA↘↗]_{PM}⁷³ [↗FAGORE ESKE heldu gare↘↗]_{PG}

67. Ahozko pasartea izaki, erraz egin liteke azken unitatearen bestelako banaketarik ere, aditza alde batetik emanez, eta *Espainian* osagaia unitate beregain batean, esaldiko lehen pGa osatuz.

68. 12 silabako unitate luzea.

69. Beharbada eman litezke azken bi unitateak bakarrean (12 silaba), hasierako gailurraren ondotik. Unitatea luzexka izateaz gain, halako ebakera batek gutxituko luke *handietarik* osagaiaren berezko garrantzi semantiko predikatiboa.

70. Beharbada eman litezke azken bi unitateak bakarrean aditzaren gailurraren ondoretik. Luzexka litzateke, ordea (14 silaba), eta osoari eman beharko litzaioke predikazio marko soil balioa, *okasioneaz baliatu* sintagmari behar garrantzia eman ezinda.

71. Halako unitateetan esperimentalki argitu beharreko arazoak ditugu unitateko gailur prosodiko-intonatiboa izenlagunari edo izenari eransteke.

72. Unitatea luzexka gertatzen da (13 silaba) eta beharbada eman liteke bitan banatua: alde batetik, *sekulako* izenlaguna -PM- eta ondotik pGa.

73. Bokatiboa izaki, bere horretan eman lekioko predikazio gune balioa ere.

5. [↗OTHOIZTEN zaitugu↗]_{PMG} [↗ARDIETS dauzkigutzun↗]_{PMG} [↗LAU gauza↗]_{PG}
[↗GU GUZIEEN nagusiarenganik↗]_{PG}⁷⁴ [↗AMOREKATIK eta↗]_{PM} [↗IZAN DADIN gure
erresuma↗]_{PMG} [↗BETHIKOTZ uros↗]_{PG}⁷⁵
6. [↗NAHI ginuke↗]_{PMG} [↗OGI↗]_{PM} [↗ARNO↗]_{PM} [↗eta HARAGI↗]_{PM}⁷⁶
[↗AUSARKI↗]_{PG} [↗eta LAUGARRENEKORIK↗]_{PM} [↗BAKEA↗]_{PG}
7. [↗HEKIEN galdea entzun eta↗]_{PM} [↗JESUS KRISTOK erraiten diote↗]_{PMG}
[+8_{PMG+PM+PG}+9_{PMG+PM+PM+PG}+ 10_{PM+PMG+PG}]
8. [↗EZ DA posible↗]_{PMG} [↗LAU GAUZA horiek↗]_{PM} [↗IZAN DITEN elgarekin↗]_{PG}⁷⁷
9. [↗EMAITEN dauzkitzuet↗]_{PMG} [↗OGIA↗]_{PM} [↗ARNOA↗]_{PM} [↗eta HARAGIA↗]_{PG}⁷⁸
10. [↗bainan HORIEKIN↗]_{PM} [↗EZ DUZUE ukhanen↗]_{PMG} [↗BAKERIK↗]_{PG}⁷⁹
11. [↗ORDUZ geroztik↗]_{PM} [↗ESPAINIAN↗]_{PM}⁸⁰ [↗BADA abundanteia↗]_{PG}
12. [↗bainan FALTA dute↗]_{PMG} [↗BAKEA↗]_{PG}⁸¹

Pasarteko esaldien eskema da:

INTONAZIONITATEAK								
ESAL.	1.	2	3	4	5	6	7.	8
1.	PM	PM	PMG	PG				
2	PM	PMG	PM	PG	PMG	PG	PM	PG
3	PM	PMG	+++					
4.	PM	PG						
5.	PMG	PMG	PG	PG	PM	PMG	PG	
6.	PMG	PM	PM	PM	PG	PM	PG	
7.	PM	PMG	+++					
8	PMG	PM	PG					
9.	PMG	PM	PM	PG				
10.	PM	PMG	PG					
11.	PM	PM	PG					
12	PMG	PG						

8.3. Euskara estandarreko zenbait testu

Gaur egungo euskara estandarreko testuen artean bi eratakoak aukeratu ditugu. Lehenengo bostek esaldi puztu, luze eta konplexuak darabiltzate, eta fidel segitzen joskera azkue-altubetar kanonikoaren ildoak. Azken biak, berriz, joskera kanonikoaren fideltasun maila berean, esaldi laburragoko testuak dira (bigarrena 8 urteko haurrei zuzendua). Berriz, guk eginiko unitate banaketa aukera bat da besteren artean, nahiz gehienetan testuen egiturak berak garamatzen unitate puztuak

74. Beharbada eman litezke azken bi unitateak bakarrean, *lau gauza* osagaiaren gailurraren ondotik. Horrek unitate luzea emango luke (14 silaba), eta garrantzi eskasagoa eskainiko osagai ablatiboari.

75. Ahozko kontaeran ez da harrizko izango azken unitatea ere bitan ematen bada, osagai bakoitzari aparteko erliebea emanez.

76. Beharbada eman litezke azken hiru unitateak bakarrean *ogi* osagaiaren gailur pean.

77. Unitatea plausibleki eman liteke bitan banatua ere, *elgarrekin* osagaia askoz azpimarratuagoa azken predikazio gunean.

78. Oso nekez baino ezin liteke pentsatu azken hiru unitateak bakarrean ematea, nahiz hirurak izan predikazio gunearen zati, eta hori ere intonazioan islatu.

79. Azken bi unitateak oso plausibleki eman litezke era berean bakarrean eta *bakerik* osagaia ez *duzue* gailurraren isatsean, azken osagai honen azpimarra ezabatuz.

80. Beharbada eman litezke azken bi unitateak bakarrean eta *Espanian* osagaia, *orduz geroztik* osagaiaren gailur pean, autonomia galduz.

81. Beharbada eman litezke bakarrean azken bi unitateak *falta dute* gailurraren pean, baina horrek erabat ezabatuko luke *bakea* osagaiaren azpimarra, kontakizunari grazia galaraziz.

aukeratzera (are haurrentzako testuan ere). Interesgarria da hauen parekatzea orain artean aztertu ditugunekin (ik. 8.4. atala). Segidan lehen testuaren informazio egituraren itxuraketa. Bestek, unitateen kategoriek, 9. eranskinean.

8.3.1. “Aurrera”, EHEren aldizkaria. / EHEK BRETOIERAREN AUZIA AZTERTU DU BERE ALDIZKARIAN. (Egin, 1988-IV-7, 16).

Kaleratu berri duen “Aurrera” aldizkariaren ale berrian, Euskal Herrian Euskaraz erakundeak bretoierari buruzko artikulu sakon bat eskeintzen du irakurgai. Izan ere botere-hizkuntza ez izateak bretoierari suposatu izan dion hondamendia aztertzen da EHEk kaleratzen duen aldizkari honetan.

Zentzu guztien arabera, atzera itzuliezinezko puntura iritsi bide da bretainiarren hizkuntza. «Egungo baldintza orokorrak begiz jota, egin dezakeen guztia eginda ere, —azaltzen da Aurrera aldizkarian— hizkuntza hil baten ghettoa bizirik iraun erazi, hortik aurrera ezer gutxi».

Sakoneko erreportai honetaz aparte, Aberri Egunerako EHEk kaleraturiko lemarean azalpena eskeintzen du Aurrera-k. “Euskararen erabilpena, herriaren iraupena”-ren zentzua, etorkizunari begira dagoen eginkizunean datza EHEko kideek diotenaren arabera: «Euskararen erabilpenak bakarrik ziurtatuko bait du azken finean Euskadiz, Euskal Herriaz dugun projektuaren iraupena».

Horrekin batera, “Bateginik” kanpaina eta hizkuntz perfilen inguruko auziaz EHEk duen jarrera argitzen da, bestek beste, aldizkariaren 14. ale honetan.

Amaitzeko, Euskal Herrian Euskaraz erakundeak bere buruaren berri eskeintzen du, erakundeak herri eta auzo desberdinetan egindakoaren berri alegia.

8.3.3.1. Pasartearen informazio-egituraren itxuraketa

1. [↗KALERATU berri duen↘]PM [↗AURRERA aldizkariaren↘]PM [↗ALE BERRIAN↘]PM⁸² [↗EUSKAL Herrian Euskaraz erakundeak↘]PM⁸³ [↗BRETOIERARI buruzko↘]PM [↗ARTIKULU sakon bat↘]PM [↗ESKEINTZEN du irakurgai↘]PG⁸⁴
2. [↗IZAN ere]PM [↗BOTERE-hizkuntza ez izateak↘]PM⁸⁵ [↗BRETOIERARI suposatu izan dion↘]PM⁸⁶ [↗HONDAMENDIA aztertzen da↘]PG⁸⁷ [↗EHEk kaleratzen duen↘]PM [↗ALDIZKARI honetan↘]PG
3. [↗ZENTZU guztien arabera↘]PM [↗ATZERA itzuliezinezko puntura↘]PM⁸⁸ [↗IRITSI bide da↘]PMG [↗BRETAINIARREN hizkuntza↘]PG⁸⁹

82. Azken bi unitateak beharbada eman litezke bakar luzean (14 silaba).

83. 13 silabako unitatea beharbada bitan bana litekeena.

84. Beharbada eman litezke azken bi unitateak 15 silabako luze bakar batean.

85. Beharbada eman liteke unitatea bitan banatua, *zer* osagaia alde batetik, eta *ez izateak* bestetik.

86. Beharbada eman liteke 13 silabako unitatea bitan banatua.

87. Beharbada bana litezke azken bi unitateak modu desberdin batean: *suposatu izan dion hondamendia* unitate luzea (14 silaba) alde batetik, eta *aditza* bestetik.

88. Unitate luzexka 13 silabarekin.

